



marxismoari buruzko berrogei egia deseroso

PATXI LÓPEZ DE TEJADA FLORES



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

patxi lópez de tejada flores

marxismoari buruzko berrogei egia deseroso

Eszeptikoei eta idealistei.

Komunismoa faszismoaren modu hobetua besterik ez da.

Susan Sontag

Komunista Marx irakurri duena da, antikomunista ulertu duena.

Txiste errusiarra.

aurkibidea

hitzaurrea

- 1.- Gainbalioa kontzeptu ekonomiko hutsala da.
- 2.- Ekonomia sozialistek ezin dituzte prezioak finkatu balio katearen faltan.
- 3.- Etekin marjinalaren kontzeptuak, ekonomian 1870an deskubritu zena, teoria marxista ezeztatu zuen hasieratik.
- 4.- Marxistek aberastasuna banatzea agintzen dute, baina boterea eskuratzen dutenean pobrezia banatzen dute.
- 5.- Marxistek estatu totalitarioak eratzen dituzte bizitza pribatua edo bidaiatzeko eskubidea errespetatzen ez dituztenak, eta oinarrizko giza eskubideak urratzen dituztenak.
- 6.- Marxistek giza eskubidea zibil eta politikoak arbuiatzen dituzte formalidade hutsak direla argudiatuz, eskubide sozio-ekonomikoak lehenesteko, baina gero azken horiek ere ez dituzte betetzen.
- 7.- Marxismoa herria eta jende xumea aldezteko aldarrikatzen du, baina gero bere erabakiak ez ditu errespetatzen, sozialismo errealeko estatuetan hauteskunde librerik ez baitago. Herriaren izenean gobernatzen dute komunistek baina ez diote herriari bozka egiten uzten.
- 8.- Marxistek boterea eskuratu dutenean estatu-kolpeen bidez edo bortizkeriaz izan da orokorrean.

9.- Sozialismo errealeko estatueta herriak gobernatzen duela aldarrikatzen dute (hauteskunde librerik egin gabe) baina benetan askotan agintarien dinastia hereditarioak dauzkate.

10.- Marxistek herrien askapena eta emantzipazioa agintzen dute baina gobernatzen dituzten estatuak espetxe erraldoiak bihurtzen dituzte, zeinetatik biztanleak ihes egiten saiatzen diren etengabe.

11.- Marxismoak ideologia askatzaile gisara aurkezten du bere burua baina sozialismo errealeko estatueta kontzientzia preso eta preso politiko gehiago daude demokrazia formaletan baino.

12.- Marxek klaserik gabeko gizarte bat iragarri zuen baina sozialismo errealeko 70 estatueta klase sozialak sortu ziren, eta ez ziren meritokraziak, partidu bakarrekiko atxikimenduaren araberrako sailkapenak baizik.

13.- Marxistek estatu totalitarioak eratzean kritika, eta horrekin hobetzeko gaitasuna, oztopatzen edo galarazten dute.

14.- Sozialismo marxistak langileria enpresari kapitalistengandik askatzea agintzen du baina gero estatuaren esklabok bihurtzen dute.

15.- Marxek jabetza pribatua gaitz ororen erroa zela zioen, baina jabetza pribaturik gabe ez dago askatasunik, askatasun hori adierazteko bideratzeko eta gauzatzeko baliabide materialik ez dagoelako izaterik ondasun guztiak estatuarenak baldin badira.

16.- Komunismoan jaberik ez dagoenez, pertsona guztiak estatuaren maizterrak dira eta herria menpekotasun egoerarik okerreanean dago edozein estatu kapitalistan baino.

17.- Marxistek gizarte kapitalistetako kriminalak gaixo sozialak direla diote, klaseen sistema bidegabeak eragindakoak, baina sozialismo errealeko estatuetan zigor gogorragoak eta luzeagoak jartzen zizkieten kriminal kopuru berdintsuei.

18.- Marxismo populistak azken urteotan banketxeen aurkako erretorika bat eta errelato bat osatu ditu, baino sozialismo errealeko estatu guztietan banketxeak daude.

19.- Marxen iragarpenak kale egin dute, kapitalismoa ez da esku gutxi batzuetan kontzentratu, gizaki sozialista ez du kontsumoaren eskaera gutxitu eta sozialismo errealeko estatuek porrot egin zuten.

20.- Marxista gehienentzat helburuak bitartekoak justifikatzen ditu, eta horregatik iraultza bortitzak, erailketak, lapurretak eta bortxaketak zilegiak izan daitezke kausarengatik egiten baldin badira.

21.- Marxismoak talde sozialen arteko (klaseen arteko borroka) gorrotoa eta gatazka eragiten eta bultzatzen du.

22.- Sozialismo errealeko sistemek milioika pertsonak gosez hil ditu.

23.- Sozialismo errealeko estatuek milioika pertsonak barne purga politikoetan erail dituzte.

24.- Sozialismo errealeko estatuek eta terrorismo marxistek milioika pertsonak erail ditu gerretan eta gatazketan.

25.- Marxismoa nazionalismoak gainditzeko ideologia unibertsalista bat bezala saltzen du bere burua (munduko langileak bat zaitezte!) baina nazionalismoak bultzatu ditu nonahi, eta ez du estatu bakar bat desagerrarazi.

26.- Nazionalismo komunista horien eraginez, estatu sozialistek deportazio masiboak eta hizkuntza gutxituen eta gutxiengo nazionalen aurkako neurri sistemmatikoak hartu zituzten.

27.- Estatu sozialistek elkarren arteko gerrak izan dituzte.

28.- Sozialismo errealistako estatuek ez dute komunismoa aplikatu, estatu kapitalismoa eta sistema kapitalista baizik.

29.- Komunistek ez dute inoiz komunismoa aplikatzen, eta komunismoa aplikatua izan zen momentu bakarrean, desastre bat izan zen eta kapitalismora itzuli ziren, baina askatasun ekonomikorik eta eskubide ekonomikorik gabe.

30.- Sozialismo errealeko bideragarriak suertatu diren estatu bakarrak kapitalismoari atxiki diotelako da (Txina, Vietnam eta Laos).

31.- Engelsek komunismoa iritsiko zenean estatua berez desagertu zela iragarri zuen baina ez zen inoiz gertatu, estatu komunista historiako estaturik handienak eta gizarteetan eta bizitza pribatuan intrusiboenak izan dira eta badira, eta denboraren poderioz handiagoak eta intrusiboagoak bihurtzen ziren.

32.- Marxek klaserik gabeko gizarte batean, non produkzio-bideak publikoak izango ziren, gizakia azkenik libre izango zela iragarri zuen, baina estatu kapitalistetan gizakia askoz libreagoa da sozialismo errealeko estatuetan baino.

33.- Sistema sozialistek jabetza pribatua abolitzean eta jarduera guztiak burokraziaz eta zentsuraz itotzean ekimen pribatuaren posibilitatea eliminatzen dute.

34.- Marxismoa alienagarria da, behar kolektiboak lehenesten dituelako pertsonaren beharren gainetik.

35.- Pertsonaren beharren gainetik, kontaezinak dira komunismoak hondatu dituen familiak eta bizitzak (militanteenak barne, ausaz militanteenak nagusiki).

36.- Estatu sozialistek ez dituzte arteak, humanitateak edo zientziak berez errespetatzen ezta baloratzen ere, zentsuratu egiten ditu eta instrumentalki ideologia komunista sustatzeko erabilgarriak suertatzen diren heinean bakarrik toleratzen ditu.

37.- Ideologia marxistak tresna askatzaile bezala bere burua saldu arren estatu totalitarioak eratzea eragiten du, bizitza publiko eta pribatu aspektu guztiak etengabe kontrolatzen saiatzen direnak.

38.- Marxen teoriaren arabera, non baldintza materialek gizakiaren izaera determinatzen duten, estatu sozialistetako biztanleak, materialki pobreak eta ekimen ahalmena galduta izanik, izpiritualki pobreak lirateke.

39.- Marxek iraganari buruzko ikuspegi ebolutibo eta dinamiko bat zeukan, baina etorkizuna estatikoa ikusten zuen, geroko bilakaerak onartu edo aurreikusi gabe, komunismoak historiaren bilakaera gelditzeko gauza balitz bezala.

40.- Komunismoa ez da inoiz ailegatzen, munduan geratzen diren bost estatu komunistetako (Kuba, Txina, Vietnam, Laos, Ipar Korea) konstituzioetan komunismoa eraikitzen dihardutela diote, hirurogeita hamar urte ondoren kasu batzuetan.

gibel solas gisa

bibliografia

hitzaurrea

Besteen pobreziak eta beharrak asaldatuta geratzen ez dena sen faltan dabil, besteak pobrezia gaitzen eta atzean uzten lagundu nahi duena edo laguntzen dituen pertsona nabarmen bat da, pobrezian geratzeko, okertzeko edota hedatzeko erretorikaz baliatzen dena, zein ere diren erabiltzen dituen milikeria, sublimazioa -pobreziarena ustezko austeritatean, adibidez-, emozioak ernatzeko edo planteamenduak justifikatzeko kontakizunaren edertasun morala, arduragabe bat edo inozo bat da.

Edvard Bernsteinek hasitako sozialdemokraziaren jarraitzaileek Marxen ondorengo zilegiak direla aldarrikatzea daukate komunistek bezainbeste, baita bestelako mugimendu ezkertiar askok ere gaur egun arte irautea lortu dutenak, eta gehienetan bortizkeria arbuia egiten dutenak.

Testu honek halere Marxek bere lanetan plazaratutako teoria bera, komunismoa eta sozialismo errealeko estatuen ibilbidea ditu hizpide. Marxen predikuek bere izenean eratu diren estatu sozialistak ezinbestean eragin ote dituen, edo azken hauek teoria marxistaren ondorio naturalak ote direnari buruzko auzian gehiegi sartu gabe, onar dezakegulako estatu sozialistek dotrina marxistaren muina gauzatu egin zutela, jabetza pribatuaren abolizioa hein batera edo bestera eta ekoizpen bitartekoen desjabetzea eta eskuratze kolektiboa (kolektiboaren izenean bederen), besteak beste.

Marx berak bazekien bere teoria ekonomikoak (eta bere ustean ekonomiak gainontzeko guztia baldintzatzen du, ekoizpen modu materialek gizartearen egiturak eta sinesmen gainegiturak determinatuko lituzketelarik une historiko bakoitzean) kale egin zuela bere oinarrian, 1870an etekin marjinalaren hipotesia zabaldu zenetik horren berri izan zuelako eta gainbalioaren tesia, bere planteamendu ekonomikoaren funtsa zena, ezeztatzen zuela erabat, eta ordutik 1883an hil zen arte etekin marjinalaren efektua eta teoria ezeztatzen saiatu zen lortu ezinik.

Harrigarria baldin bada ere, sinestezina ez esateko, marxismoak ekonomikoki ez dabilela eta ekonomia marxistak funts teoriko solidorik ez dituela mundu akademikoak badaki XIX.

mendetik, igaro diren ehun eta berrogeita hamar urtetan mundua akademiko marxistez gainezka egon den arren.

Dena dela, ondoko orrietan esaten denak ez dio izpi bat ere kentzen Marxen ekarpen intelektual itzelari. Bere akats guztiak kontuan hartuta ere, eta pila bat egin zituen, Marx filosofo praktiko garrantzitsuenetakoa izan da historian, eta horrez gain ikerlari zintzoa eta zorrotza. Bere lanean jasotzen diren ideiak ez dira bereak, ez zituen berak sortu, baina sistema batean antolatzen dituen modua eta biltzen dituen ikuspuntu orokorra berak asmatu zituen eta material horiekin proposamen ideologiko berria eta orijinala osatu zuten.

Bestaldetik, eta hori ere esan beharra dago, sektarismo eta dogmatismo leize sakon bat badago Karl Marxen eta bere jarraitzaile gehienek artean, Marx azken horiek baino askoz ere zuhurragoa, objektiboagoa eta irekiagoa zelako. Marx ez zen inondik inora gizarte-zientzialari marxista dogmatiko bat, nolabait esate arren, egiaren eta justiziaren bila jarduten zen ikerlari independente eta apart bat baizik.

Bere izenean egindako krimenak eta gertatutako bizitza galerak, militanteenak barne -ausaz militanteenak nagusiki-, zenbateraino leporatu lekizkioken ez dirudi epaitzen erreza, eta inolaz ere ez da testu honen helburua.

1.- Gainbalioa kontzeptu ekonomiko hutsala da.

Marxen teorian gainbalioa enpresariak langileari lapurtzen dion balioa da, langileak bere lanarekin produktu edo zerbitzu bakoitzari eransten dion balio gehitutik.

Tesi horren oinarrian sinesmen oker bat dago, Marxek David Ricardo ekonomistaren pentsaeratik hartu zuena, zeinaren arabera ondasun edota zerbitzu baten balioa produzitzeko eskatu duten orduen kopuruan datza, horrek ustezko balio objektiboa ematen duelarik. Egun horiek huskeriak direla badakigu, astakeriak ez esatearren, gauzek eta zerbitzuek ez daukatelako inongo balio objektiborik, merkatu balio bat beste batek prezio bezala ordaintzeko prest dagoenean datzalako, eta prezio horrek ez daukalarik inolako erlazorik produzitzeko behar izan diren ordu kopuruekin, eta gainera ondasun bera edota zerbitzu bera behar den produzitzeko ordu kopurua ez da finkoa, efizientziaren araberakoa delarik (gari tona bera uztatzeko ordu erdi bat behar da Estatu Batuetan eta berrehun ordu Afrikako zenbait herrialdeetan). Halere, balio objektiboaren sineskeria hutsal horren gainean gainbalioaren teoria eta eratorbidez teoria ekonomiko marxista osoa eraikita dago.

Dena den, gainbalioaren teoria horren arabera, estatu sozialista marxistetan langileei balio osoa ordaintzen zaiela pentsa genezake. Baina, orduan, nondik ateratzen da estatuaren egitura osoa mantentzeko dirua? Estatu sozialistetan printzipioz ez dago zergarik jabetza pribaturik ez dagoelako, baina orduan langileei beren lanaren balio osoa ez al zaie ordaintzen? Nondik ateratzen da orduan zerbitzu publikoak finantziatzeko behar den dirua?

Bestaldetik, nola jakin dezakegu enpresariak langileari lapurtzen omen dion gainbalio hori zenbatekoa den? Produktu edo zerbitzuaren saltzeko prezioaren arabera? Nori saltzeko? Beste enpresa bati edo azkeneko kontsumitzaile bati? Eta bigarren eskuko ondasunak baldin badira?

Beste ikuspuntu batetik ikusita, sozialismo errealeko estatuetan lanaz aldatzeko eskubiderik ez dagoenez ez dago lan merkatuak, eta beraz ez dago esaterik lanaren balioa edo ordaintzen den soldata egokia edo zuzena den, politikoek eta burokratek erabakitzen baitituzte soldatak eta langileek onartzea besterik ez daukate.

Halaber, egiazki estatu sozialistetan soldatak edozein estatu kapitalistetan baino askoz baxuagoak dira, jenerotan prestazioak eta errazionamenduak kontuan harturik ere, eta horretaz ez da ikusten zer onura ekarri dion edo ekar lioken langile bati teoria marxista osoa edota sozialismo errealeko estatu batean bizitzea. Are gehiago, estatu kapitalistetan prestazio publikoak jasotzen dituzten langabetuek edo diru sarrerarik gabeko familiek askoz ere diru gehiago eskuratzen dute hilero estatu sozialistetakoa goi mailako langile espezializatuek soldata bezala jasotzen dutena baino.

2.- Ekonomia sozialistek ezin dituzte prezioak finkatu balio katearen faltan.

Prezioak ezinbestekoak dira ondasunen eta zerbitzuen eskasia kudeatzeko, eta eskasiaren aitorpena eta kudeatzen ikastea da ekonomiaren oinarria eta justifikazioa zientzia bezala. Baliabideak mugagabeak baldin balira ez legoke ekonomiaren beharrik, baina hori ez da mundu errealean gertatzen, baliabide gehienak, guztiak ez esateko, eskasak direlako.

Pertsonaren ikuspuntutik ere, denok daukagu baliabide mugatuak eta beraz inbertitzen ikastea bizirauteko garrantzi kritikoko erronka da guztiontzat, eta erosketa hautuak egiteko prezioak ezagutzea ezinbesteko gaitasun bat da, bestela, prezioak ezagutu edo kontuan hartu ezean gustatzen zaigun etxea, autoa, janaria, ardoa, bidaia eta dena delakoa erosten baditugu oso azkar porrot egingo dugu.

Zer esanik ez maila kolektiboko erabakietan, erakunde publikoen edo enpresen baitan, non baliabideak antolatuko behar diren produktu edo zerbitzuen ekoizpena eraginkorki bideratzeko.

Prezioak ez dira datu bakunak bakarrik, edozein ekonomian eta edozein mailan hautu arrazionalak egiteko informazio iturri nagusia baizik, ezinbestekoa. Izan ere, pertsona bakoitzak gogoan hamabost edo hoge mila inguru hitz dakizkiela kalkulatzeko da, baina hamar edo hamabi mila inguru prezio buruz dakizki ere bai, bata bestea bezain garrantzizkoa izanik egunerokoan.

Zer gertatzen da marxismoarekin? Ba ekonomia sozialista planifikatuetan, nola eskaera eta eskaintza librerik ez dagoen horien arteko elkarrekintzaz edo gurutzaketaz sortzen diren prezio errealik ez daude. Nola egiten dute orduan baliabideak antolatzeko ezinbestekoak diren ondasunen eta zerbitzuen prezioen berri izateko? Trikimailuez eta azpijokoez: merkatu beltzeko prezioak ikertzen (merkatu ofizialek inoiz funtzionatzen ez dutenez estatu sozialistetan merkatu ez ofizialak edo 'beltzak' sortzen dira berehala jendearen beharrak asetzeko), merkatua erreala zeneko prezioak gogoratuz, edo merkatu kapitalista errealei begiratzuz. Hirurogeita hamarreko hamarkadan, adibidez, Sobietar Batasuneko planifikatzaileek prentsa ekonomiko mendebaldarra (Estatu Batuetakoa gehien bat, *Wall Street Journal*, *Financial Times* eta abar), eta supermerkatu mendebaldarren propaganda eta katalogoak biltzen eta aztertzen zituzten merkatu sobietarrean prezioak jarri ahal izateko, barne argibide iturrien faltan.

Egiturazko ahulezia gaindiezin horren jakitun, ekonomista marxistaren batek, egun batean munduko herrialde guztiak komunistak izango zirela amesten zutenean, Zelanda Berria estatu kapitalista isolatu bezala uztea proposatu zuen gainontzeko estatuentzat merkatuko prezio errealak sortzeko helburu bakarrarekin.

3.- Etekin marjinalaren kontzeptuak, ekonomian 1870an deskubritu zena, teoria marxista ezeztatu zuen hasieratik.

Etekin marjinalaren teoria Friedrich von Wieser-ek zabaldu zuen (berak sortu ez zuen arren, William Stanley Jevons-ek, Carl Merger-ek eta Marie-Ésprit-Leon Walras-ek baizik) XIX mendean, eta erabiltzaileak produktu bat edota zerbitzu bat kontsumitzen duen bakoitzean lortzen duen etekina du aztergai.

Horren ondorioz gutxiagoko etekin marjinalaren legea deskubritu zen, hau da, kontsumitzaile batek hurrengo produktu edo zerbitzu batetik eskuratzen duen etekina gutxitzen doala zero izan arte. Egarrri den norbaiti, esate baterako, lehenengo ur botilak etekin bat ematen dio, bigarren batek gutxiagoko bat, eta agian aurrenekoa baino merkeagoa baldin bada erosi egingo du, baina dagoeneko egarrri ez denerako, hirugarren edo laugarren edo hurrengo ur botilek ez diote inolako etekinik emango, eta beraz ez ditu erosiko bigarrenetik edo hirugarrenetik aurrera gastuak berarentzat zentzua galdu duelako. Koltxoi baten beharrea dagoenak komeni zaion bat erosteko prest egongo da prezioaren batean ziur aski, bigarren bat igoal ere bai berdina izanik merkeagoa baldin bada, hirugarren bat non gorde baldin badauka onartuko du ere agian, baina laugarrenetik aurrera ez ditu ezta oparitura ere nahi izango, erabili ezinik ez diotelako ezer aportatzen eta onuren beharrea arazoak ekarriko dizkiotelako.

Horrek frogatzen du produktu edo zerbitzuen balioa subjektiboa dela, ez objektiboa, eta finkoa ez izanik balio horrek ezin du izan langileak bere lanarekin erantsi dion gainbalioaren gehiketaren emaitza. Merkatuan ez dago baliorik ezta preziorik erosleak ordaintzeko prest dagoenetik at, eroslearen beharrea eta nahien arabera, eta ondorioz produktu eta zerbitzuek balio objektibo bat daukatela -ekoizteko edo sortzeko lanaren gainbalioa ustez barneratuta daukana- baieztatzen duen tesia ekonomikoki zentzugabea da.

Marxek teoria horren berri izan zuen, teorikoki ezeztatzen saiatu zen behin eta berriro -bere teoria ekonomiko osoa deuseztatzen zuelako- eta lortu gabe hil zen 1883an.

4.- Marxistek aberastasuna banatzea agintzen dute, baina boterea eskuratzen dutenean pobrezia banatzen dute.

Utopia marxistan dirudunen aberastasunak banatzeak, jabetza pribatua debekatu ondoren eta jabeei desjabetu ondoren, biztanleria guztia aberatsagoa egin behar zuen, baina errealitatean estatu sozialistetan kontrakoa gertatu da, biztanleria osoa pobretu egin dela kasu guztietan.

Bataz bestekoan, estatu komunistetako *per capita* errenta estatu kapitalistetako hamar aldiz baxuagoa da, gutxienez. Nazio Batuen Erakundeko giza garapenaren indizearen perspektiba erabilita bestaldetik aldea nabarmena da ere.

Kubak 1958an, Fidel Castrok 1959an boterea eskuratu aurretik, Frantziako eta Austriako errenta *per capita* berdina zuen eta Espainiakoaren eta Italiakoaren bikoitza. Komunismoko hirurogei urteren burua bataz besteko soldata hileko 15 eta 50 dolaren artean dago Kuban, Haitin langileek kobratzen dutena baino gutxiago.

Venezuelan 1999an, Hugo Chávez boterean instalatu aurretik bolivar baten balio ehun bilioi aldiz gutxitu da, tartean 1879 eta 2007 urteen artean zirkulazioan egon zen bolivar 'zaharra' desagertu delarik.

Komunismotik kapitalismora itzuli ziren estatuetan (gehienak, bost estatu izenez komunistak gelditzen direlako munduan besterik ez, eta horietatik bi bakarrik, Kubak eta Ipar Koreak, sistema ekonomiko sasi sozialistak aplikatzen dituzte, gainontzekoak -Txina, Vietnam eta Laos sistema ekonomiko kapitalista hutsak aplikatzen dituztelarik formalki diktatura komunistak izaten jarraitu arren) trantsizioan hamaika testigantzen arabera jendea gehien txunditzen zuena produktu merkeztan beteta zeuden supermerkatuak ikustea izan zen.

Gaur egungo Kuban eta Venezuela argindar-eteteak oso ohikoak dira, eta Ipar Korean goseteak ez daudenean ere biztanlegoaren ehuneko berrogeia pobrezia itopuntutik azpian bizi direla kalkulatu da.

Korea planetan dagoen herrialde etnikoki ia homogeneoa bakarrenetakoa da, bakarra ez esateko. Bigarren Mundu Gerraren ostean herria bi estatutan banandu zen, Ipar Korea komunista eta Hego Korea kapitalista. 2024an Hego Koreako errenta *per capita* 34.165 dolarekoa da, Ipar Korean 654 dolarekoa da.

Maila globalean, 1980an, munduko biztanleriaren heren bat diktadura komunistez gobernatuta zegoenean pobrezia tasa ehuneko 42,7koa zen. 1989an errejimen komunista gehienak berez eta gerrarik gabe erortzen hasi zirenetik aipatutako bostak isolatuta utzi arte, 2000an pobrezia tasa globala ehuneko 27,8koa zen, eta 2020an ehuneko bederatzikoa inguru zen.

5.- Marxistek estatu totalitarioak eratzen dituzte bizitza pribatua edo bidaiatzeko eskubidea errespetatzen ez dituztenak, eta oinarrizko giza eskubideak urratzen dituztenak.

Marxismoa zapalkuntza kapitalistaren aurkako ideologia askatzaile bat bezala aurkezten du bere burua, baina eragin dituen errejimen politikoak diktadura totalitarioak izan dira gehienetan, oinarrizko giza-eskubideak errespetatzen ez dituztenak. Errealismo sozialistako estatuetan politikan eta gai publikoetan libreki parte hartzeko eskubidea urratuta dago, baita iritzia libreki ematekoa, alderdi politikoak edota sindikatuak osatzeko eskubidea ere, eta prentsa librerik ez dago.

Edozein adierazpen mota zentsuratuta dago eta errejimenaren alde ez baldin badu egiten debekatuta, bereziki arlo artistikoan, literarioan edota umorekoan.

Halaber, atzerrira bidaiatzeko baimen berezi bat estatuari eskatu beharra dago, eta oso gutxitan ematen da eta edonolako disidentzia agertu dutenei inoiz ez.

Oro har, Iraultza Frantziarrak desagerrarazten hasi zen Antzinako Errejimenak baino askoz ere zapaltzaileagoak, zentsuratzaileak eta bizitza pribatuan intrusiboagoak dira estatu sozialista modernoak.

Errealismo sozialistako estatuetan populazio guztia uneoro espiatzeko ohitura orokortu zen. Alemaniako Errepublika Demokratikoan Stasi-k (zerbitzu sekretua) hamasei milioi laguneko biztanleria batetik 91.015 enplegatuk zituen eta 174.000 informatzailek, horiek familiakoei, senideei, lagunei, bizilagunei eta lankideei buruz aldizkako jazarpenak eta portaera txostenak bidaltzen zituztelarik, estatu totalitario guztietan bezala ezer txarrik egin gabe mundu guztia susmagarria zelako, eta edozein jokabide ezberdin edo ezohikoa are susmagarriagoa. Sobietar Batasunean KGB-ak 480.000 enplegatuk zituen.

Txinan Mao Tse Dongen Iraultza Kulturean alderdiko funtzionarioek seme-alabak beren gurasoak eta aiton-amonak salatzerantz animatzen zituzten eta milek egin zuten. Alderdiko funtzionario berberei salatzeko 'eskuindar' kupo bat esleitzen zieten aldiro (egiazko 'eskuindarrak' egon ala ez, horrek garrantzia baldin badu), eta kupoa ez baldin bazen betetzen funtzionario bera 'eskuindarra' izateagatik atxilotzen eta zigortzen zuten.

Gaur egungo Kuban etxebizitza bloke bakoitzean *Comité de defensa de la Revolución* bat osatzen da bizilagun guztiak jazartzeko eta espiatzeko, eta haien bizitza ohituren berri emateko autoritateei. Kubako gobernuaren arabera 133.000 inguru daude irla osoan eta zortzi milioi inguru bazkide dituzte.

6.- Marxistek giza eskubidea zibil eta politikoak arbuiazen dituzte formalidade hutsak direla argudiatuz, eskubide sozio-ekonomikoak lehenesteko, baina gero azken horiek ere ez dituzte betetzen.

Giza eskubideen artean bi mailako eskubideak bereiztu ohi dira: alde batetik eskubide absolutuak botere publiko guztiek errespetatu ezezik babestu ere egin behar dituztenak, hala nola bizitzarako eskubidea, libre izateko eskubidea, berdin tratatua izateko eskubidea, segurtasunean bizitzeko eskubidea, torturatua edo iraindua ez izateko eskubidea, prozedura judizial zilegi baten ezean atxilotua edo espetxeratua ez izateko eskubidea, ezkontzeko eskubidea, jabea izateko eskubidea, adierazpen askatasuna erabiltzeko eskubidea, bizi den errepublikako (zentzu orokorrean) gobernuan parte hartzeko eskubidea, eta abar.

Beste alde batetik bigarren maila bateko eskubideak egongo lirateke, eskubide sozio-ekonomikoak horrela deitzearren, lana izateko eskubidea, etxebizitza bat izateko eskubidea, hezkuntza jasotzeko eskubidea, osasun sistema batez artatua izateko eskubidea, segurantzaz sozialetako babesa (erretiroko, baliaezintasuneko eta langabeziako pentsioak ematen dituenak) izateko, eta abar.

Bigarren Mundu Gerraren ostean eta sei milioi baino gehiago lagun -judutarrak, ijitoak, homosexualak, gaixo mentalak, elbarriak, disidente politikoak...- holokaustoaren eraginez (Stalinekin eragindako berrogei milioi lagun holokausto ideologikoaren eraginez ere agian) giza eskubideen aldarrikapen zaharrak (Ingalaterrako 1682ko *Bill of Rights* edo Iraultza Frantziarreko 1789ko *Déclaration des droits de l'homme et du citoyen*) Nazio Batuen erakunde berrian nazioartean balio juridikoa izan zezakeen itun batez gainditzea proposatu zenean, orduko estatu sozialistek erreserbak eta trabak planteatu zituzten, eta 1948ko Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala onartu zenetik (botazioan estatu sozialistak abstenitu egin ziren) giza eskubideak aitortzeko, garatzeko eta bermatzeko edozein nazioarteko itunen negoziazioan jokaera berdina agertu zuten bloke sozialista izeneko estatuek.

Beraien argudio nagusia zera izan zen, eskubide sozio ekonomikoak praktikan ahalbideratzeko (lana, etxea, segurantzaz soziala, hezkuntza, osasuna) beste eskubideak (adierazpen askatasuna, jabea izateko eskubidea, hauteskunde libreak, prentsa librea,

bidaiatzeko eskubidea, eta beste abar luze bat) mugatu beharra zegoela, edo, beste era batera esanda, estatu kapitalistek, tradizionalak edo demokrazia mendebaldarrek (bloke komunistan ez zeuden estatuak) eskubide formalak babestearena egiten zutela salatzen zutela estatu sozialistek benetan eskubide sozio-ekonomiak errealitatean efektiboak ez zirela ezkutatzeko eta ez zitezen aitzakia moduan hartuta.

Egia oso bestelakoa zen eta da halere, estatu sozialistetan orokortutako pobreziaren eraginez eta baliabide pribatu eta publiko eskasengatik hezkuntza eta osasun sistemak ahulagoak zirela orokorrean, soldatak eta pentsioak oso bajuak, eta etxebizitzak urriak, txikiak eta itsusiak zirela (Europako Ekialdeko porlan grisezko 'auzo sozialistei' begiratu bat besterik ez da eman behar), eta zer esanik ez beste ondasun arruntak (autoa kasu) estatu kapitalista garatuetan arruntak zirenak baina sozialismo errealeko estatuetan luxu ia eskuraezinak zirenak.

Egia da erkaketa asko aldatzen dela konparatzen ditugun herrialdeen arabera, blokeak ez zirelako homogeenak izan inondik inora eta ez dira gaur egun ere, eta estatu sozialistetan orokorrean ez dela ematen estatu kapitalista dezentetan oraindik ikusten den miseria gorria, baina bigarren munduko potentzia ekonomikoa den Txinak adibidez ez dauka segurantzaz sozialeko sistema bat ongizateko estatu europarrena sendo adina, eta Vietnamek ere ez, ofizialki estatu komunistak izan arren.

7.- Marxismoa herria eta jende xumea aldezte a aldarrikatzen du, baina gero bere erabakiak ez ditu errespetatzen, sozialismo errealeko estatuetan hauteskunde librerik ez baitago. Herriaren izenean gobernatzen dute komunistek baina ez diote herriari bozka egiten uzten.

Tout pour le peuple, rien par le peuple, zieten despota ilustratuek, 'dena herriarentzat, ezer ez herriaz'. Pentsaera hori bera agertzen dute marxistek eta bereziki leninistek, Leninek Marxen tesia langileria komunista bihurtuko zela iragartzen zuena bete ez zela ikusita, azalpen bat garatzeari ekin zion zeinaren arabera marxismo teorikoa langileentzat ulergaitza omen zenez ulertu zutenen gutxiengo batek gidari bezala jokatu behar zuen, proletariotzaren abangoardia alegia, bitarteko ez demokratikoak behar zenean ere (hau da, herriaren borondatearen kontra jokatzeko, argi esateko) erabiliz.

Boterea eskuratzeko metodologia horren moralitatea eta zilegitasuna alde batera utzita, horrek ez du azaltzen zergatik ez zaien defendatzen omen duen estatu horietan herriari erabakitzen uzten.

Are gehiago, sozialismo errealeko estatuek eta gobernuek herriaren ordezkari zilegiak direla aldarrikatzen dute ofizialki behin eta berrir (izenetan ere, Alemaniako Errepublika Demokratikoa, Txinako Herri Errepublika, Koreako Herri Errepublika, Laosko Herri Errepublika Demokratikoa, Kanputxea Demokratikoa, Etiopiako Herri Errepublika Demokratikoa, eta abar), baina ez dute inon eta inoiz alderdi politiko libreak osatzen uzten alderdi komunista ofizialaz beste (eta hori aldiro purgatu egiten dute botere taldeen arteko borroken arabera), hauteskunde librerik ospatzen ezta herritarrei politikan inola parte hartzen.

Ez al dirudi zentzuzkoa, funtsezkoa ez esateko, ustez herriaren onurarako lan egiteko orduan herritarrei galdetzea zer nahi duten?

Errusian 1917an gobernu indarrez okupatuta zeukaten boltxebikek hauteskundeak deitu zituzten urte horretan bertan, egin zirenean galdu egin zituzten (bozken ehuneko 23,5a bakarrik lortu zutelarik) eta horiek izan ziren azkeneko hauteskunde libreak 1991 arte.

Fidel Castro 1957an *Manifiesto de Sierra Maestra* izeneko sinatu zuen, non hauteskunde libreak deitzeko konpromezua hartzen zuen (1940ko Konstituzioan eta 1943ko Hauteskunde Kodean araututakoaren arabera), baita hautatua suertatuko zen gobernuari boterea entregatzeko ere. 1959an Habanan sartu zen bere gerrilarekin eta boterea eskuratu zuen, eta 2016 hil zen hauteskunde librerik inoiz egin gabe.

Bulgariako Alderdi Komunistako 60 eta 70 hamarkadetako Kongresuetan Todor Zikhov idazkari nagusia hautatzen zuten beti aho batez, horren aho batez ezen bozka gehiago zenbatzen zituzten zeuden bozkatzaile baino, ohitura horrek 'bulgariar erako hauteskundera' esamoldea eragin zuelarik, hauteskunde ez garbiak aipatzeko.

Gaurko egunean oraindik itxura demokratikoko hauteskundeak egitea antzezten dituzten estatu sasi sozialistetan (Nikaraguan edo Venezuelan, esate baterako) prozesuek ez daukate inolako bermagarriarik eta bozken kontaketa iruzur masiboaz aparte era guztietako azpijokoz (zapalkuntza izugarriak, oposizioaren buruzagien atxiloketak, migratzaileei bozka egiteko eskubidea ukatzeak...) maneiaturak daude.

8.- Marxistek boterea eskuratu dutenean estatu-kolpeen bidez edo bortizkeriaz izan da orokorrean.

XIX. mendearen bukaeran langileria gehiena marxista bilakatu ez zeneko errealitatearen aurrean, Leninen interpretazioa zera izan zen, marxista gehienak goi klaseetatik zetozela eta dotrina marxista zailegia zela herriak ulertzeko ondorioztatzea. Hortaz, iraultza egitea premiazko zat jotzen zuenez, eta sozialdemokraten erreformismo bakezalea arbuiatzen zuenez proletariotzako abangoardiaren teoria plazaratu zuen: elite marxistek iraultza gidatzeko eta ahalbideratzeko ardura zuten herriaren nahiaren kontra behar bazen ere, eta edozein bitarteko zilegia zela horretarako, bortizkeria barne.

Iraultza sobietarrean boltxebikeek hauteskunde askeak onartu zituzten eta 1917ko azaroaren 12tik 25raino deitu. Emaizak iritsi zirenean boltxebikeek galdu egin zituzten, bozken ehuneko 23,5a besterik ez lortuz, eta ondorioz Asanblea Konstituziogilea, azaroaren 28an sesioak hasi behar zituen, disolbatu egin zuten besterik gabe eta boterea estatu-kolpe batez okupatuz.

Hortik aurrera botere hartze komunista gehienak estatu-kolpez eta indarkeriaz egin dira. Europako ekialdean Bigarren Mundu Gerran (Sobietar Batasunak hasi zuena Alemania nazirekin batera Polonia inbaditzen 1939an) armada gorriak inbaditutako estatu guztietan (Txekoslovakia, Hungaria, Errumania, Bulgaria, Ekialdeko Alemania, Polonia) gobernu komunistak inposatu zituzten hauteskunderik egin gabe.

Hori baino lehen Armada Gorriak inbaditutako beste herrialdeak Sobietar Batasunean sartzerara behartu zituen, Ukraina, Georgia, Letonia, Lituania eta Estonia.

Txinan, Vietnamentan, Kuban, Nikaraguan edo Kanbodian altxamendu komunistek gobernu okupatu zuten eragin zituzten gerra zibil odoltsuetatik garaile suertatu ondoren.

Beste estatu sozialistetan enparauko botere hartze bortitzak eta ez demokratikoak egon dira.

Garaile suertatu ez direnean ere altxamendu horiek eragindako gerrek sarraskiak eta pobrezia ekarri dituzte. Greziako gerra zibilak (1946-1949) ehun mila hildako eta 700.000 errefuxiatu kausatu zituen, eta herrialdean ondorio gogoragoak izan zituen aurreko okupazio naziak izandakoak baino. Thaiandiako gerra zibilak (1965-1983) bost mila pertsona inguru

erail zituen. 1980tik *Sendero Luminoso* hasitako gerran 48.000 lagun baino gehiago hil ziren, El Salvadoren *Frente Farabundo Martí para la liberación nacional*-en matxinadan (1979-1992) 75.000 mila lagun hil ziren eta milioi bat pertsonak errefuxiatu moduan ihes egin behar izan zuten lau milioiko biztanlego batetik, eta Kolonbian 1960tik izan duten gatazkan 450.000 hildako inguru egon dira.

Indonesiako genozidioan, aitzitik, komunistak biktimak izan ziren, hango nazionalistek hiru milioi pertsona inguru masakratu egin zituztelarik bi urtetan, 1965an eta 1966an, komunistak, ateoak edo txinatarrak izateagatik beste errurik gabe.

9.- Sozialismo errealeko estatuetan herriak gobernatzen duela aldarrikatzen dute (hauteskunde librerik egin gabe) baina benetan askotan agintarien dinastia hereditarioak dauzkate.

Teoria marxistaren arabera estaturik ez luke egon behar, baina leninistek eratutako estatuetan Marxen dotrina programa gisa hartu zutenak printzipioz munduko meritokrazia garbienak izan beharko lukete, non herriak era argiago eta zuzenago batez gobernuak determinatu beharko lukeen.

Errealitatea oso ezberdina izan da eta askotan alderantzizkoa, alderdi bakarraren inguruan oligarkia nepotikoak eta extraktiboak hauteskunde libreen ezean nagusitzeaz gain estatu buruzagitzak maiz monarkien bezalako dinastiak bilakatu dira.

Ipar Korean Kim-Il-Sumg presidentea izan zen 1948tik 1994ra, hil zen arte, bere semea Kim-Jong-Il presidentea izan zen 1994tik 2011ra, hil zen arte, eta azken horren semea eta lehenengoaren biloba presidentea da 2011tik.

Kuban Fidel Castro Ruz presidentea izan zen 1959tik 2016ra, eta bere anaia Raúl Castro Ruz presidentea izan da 2008tik 2018ra.

Errumanian Nicolae Ceaucescu presidentea izan zen 1967tik 1989ra eta bere emaztea Elena Ceaucescu lehenengo ministroa izan zen 1980tik 1989ra.

Nikaraguan Daniel Ortega Saavedra presidente izan zen 1981tik 1990ra eta berriro bada 2007tik, eta bere emaztea Rosario Murillo Zambrana presidenteordea da 2017tik.

10.- Marxistek herrien askapena eta emantzipazioa agintzen dute baina gobernatzen dituzten estatuak espetxe erraldoiak bihurtzen dituzte, zeinetatik biztanleak ihes egiten saiatzen diren etengabe.

Marxismoak orokorrean eta iraultza komunistek bereziki herriak lotzen dituzten kateetatik askatzea agintzen dute, biztanleria eta bereziki langileria benetan libre izateko bide bakarra eskaintzen dutelarik, baina boterea eskuratzen dutenean gobernatzen dituzten estatuak presondegi erraldoiak bihurtzen dituzte.

Atzerrira bidaiatzeko baimenak oso gutxitan ematen zaie herritarrei eta inoiz ez edonolako disidentzia agertu dutenei. Halaber, ematen direnean, kirol txapelketetan adibidez, kirolariek abagunea ustiatu ohi dute beste herrialdeetara ihes egiteko edota haietan errefuxiatzeko.

Esan beharra dago dena dela atzerrira bidaiatzeko baimenen eskasia edo ukatze orokorrak formalitate administratibo hutsak zirela, egiazko debekua inplizitoa zen eta da, alderdiko goi karguak eta gobernuko agintariak salbu populazio ia osoa horren pobre zen ezen ez zuen inork bidaia erosteko behar beste dirurik (zer esanik ez atzerrian mantentzeko dibisak erosteko), taxuzko bidaia agentziarik ez zegoen eta bertako airelineek, itsasontziek eta trenbideek ez zuten atzerrirako bidaiarik saltzen normalean, eta beraz ez zieten ezta debekua jakinarazi beharrik ere.

Berlinen 1961an harresi bat eraikitzeraino iritsi ziren bertako biztanlegoa preso mantentzeko, zutik iraun zuen bitartean 125 lagun inguru hil zituzten zeharkatzen saiatzeagatik bakarrik. Herriak harresia bota zuenean 1989an. Alemaniako Errepublika Demokratikoko gobernuak bidaiatzeko askatasun arrunta indarrean jarri zuela telebistan berria azaldu zenaren ondoren gertatu zen.

Oztopo guzti horiekin ere, 1950 eta 1959 urteen artean lau milioi pertsona migratu ziren Europako ekialdeko diktadura komunistetatik demokrazietara, horien artean hiru milioi t'erdi alemanak izanik, harresia eraikia izan zen baino lehen (1990an Alemaniako Errepublika demokratikoak biztanle gutxiago zituen -16.028.000- 1950an zituenak baino -18.388.000-).

Harresia eraiki zutenetik 1989raino 75.000 pertsona kartzelan sartu zituzten herritik ateratzen saiatu izana delitu bakarrarengatik.

Presondegi handi bat izateko baldintza naturalak dauzkaten herrietan ere (Kuba kasu, irla bat den aldera) iheslarien kopurua ez da jaitsi urteen poderioz, baltseroen exodoa itzela eta izugarria izan delarik. Onartu duten kode penal berriaren arabera Kubatik baimenik gabe irtetea delitu bat da, zortzi urteko espetxeratzearekin zigortuta dagoena.

Estatu sozialistetan bizitza hobeago eta libreago bat baldin badago eta estatua kapitalista edo demokratikoetan sistema bidegabea eta dekadentea baldin bada, zergatik jendea migratu egiten da beti lehenengoetatik bigarrenetara eta ez alderantziz? Galdera sinple hori marxistek ez dute erantzuten asmatzen.

11.- Marxismoak ideologia askatzaile gisara aurkezten du bere burua baina sozialismo errealeko estatuetan kontzientzia preso eta preso politiko gehiago daude demokrazia formaletan baino.

Marxen teoriak gizasemearen askatzea agintzen du maila guztietan, estaturik gabeko gizarte komunista libre batean, baina gizarte sozialistek, Marxen teoriak aplikatu dituztenak, estatu totalitario zapaltzaileak eratu dituzte herrietan guztiak esklabok bihurtu dituztenak.

Gobernuak eta alderdiak une bakoitzean dotrina ofizial gisara eskaintzen duenetik aldentzen zen edonor kriminal bat bezala tratatua izaten zelarik, antiiraultzailea, burges txikia, parasito soziala, herriaren etsaia eta antzeko kalifikatiboez etiketatuta eta estatuaren segurtasun aurkako delituak egitea leporatuta espetxearekin zigortua edo, kasurik hoberenean, paria bezala estatuaren adar guztiez erabat baztertua.

Edozein aitzakia balio baitzuen estatuaren (ustez, 'herriaren') etsai bilakatzeko: disidentea edo sinpleki kritikoa izatea, homosexuala izatea, artista edo literatoa izanik lan aski iraultzaileak edo herrikoiak ez ekoiztea, ortodoxoegia izatea, atzerrian denbora gehiegi pasatu izana funtzionario bezala bazen ere, jabea edo jabeen ondorengoa izatea, judutarra izatea (Sobietar Batasuna estatu antisemitenekoa izan zen adibidez XX. mendean, eta estatu komunista gehienak oso xenofoboak izan ohi dira), parrandazalea, mendebaldeko kultura herrikoia zalea, eta abar, auskalo.

Sobietar Batasunean 1930-1960 bitarteko garaiko gulagetan hemezortzi milioi pertsona egon zen preso, zeinetatik 1,6 milioi hil ziren espetxeratuta zeudenean. 1960tik 1991rako tartean zortzi milioi lagun preso izan zituzten berain identitatearengatik edo iritziengatik, espetxeetan zein ospitale psikiatrikoetan edo berreziketa esparruetan edo lan esparruetan.

Alemaniko Errepublika Demokratikoa 1964tik 1989raino *Häftlingsfreikauf* programa aplikatu zuen, zeinaren ondorioz 33.755 preso politiko 'saldu' zizkion Alemaniako Errepublika Federalari 3.500 milioi markoren truke. Guztira 250.000 kontzientzia preso izan zituen Alemania komunistak bere historian zehar, eta horietatik hamabost mila baino gehiago bortxazko lanak egitera behartu zituzten (bortxazko lanak zigor bezala oso ohikoa izan zen sozialismo errealeko errejimenetan).

Vietnamen 2019an 128 kontzientzia preso zeuden.

Kubako kartzeletan 2023an 1062 preso politiko zeuden.

Txinan 2000. Urtetik 48.699 kontzientzia preso sartu dituzte espetxeetan.

Ipar Korean 2024an 250.000 preso politiko daudela kalkulatu da, horietako heren bat haurrak direlarik.

12.- Marxek klaserik gabeko gizarte bat iragarri zuen baina sozialismo errealeko 70 estatuetan klase sozialak sortu ziren, eta ez ziren meritokraziak, partidu bakarrekiko atxikimenduaren araberrako sailkapenak baizik.

Marxek bere garaian ikustea uste zuen klase sistema gainditu nahi izan zuen diseinatu zuen proiektu politikoaren bidez. Ez gara hemen aztertzeraz sartuko azaldu zuen klaseen sailkapen hori zenbateraino erreala zen edo den, baina gauza da berak eragindako sistemetatik gutxien espero zitekeena justuak edo meritokraziak bederen izatea dela.

Ezta urrundik ere. Ez da bakarrik posizio sozialaren transmisio hereditario ez zutela eten, zera da, horrez gain berezko kastak sortu zituztela estatu komunistek.

Zure arbasoak jabe txikiak, burgesak, aristokratak, judutarrak, ijitoak, atzerritarrak, disidenteak, homosexualak, parrandazaleak, alkoholikoak, artista dekadenteak edo oro har heterodoxoak izandakoak baziren estigma jasotzen zenuen jarauntsiz, jaiotzez eta zure bizitza osorako.

Era horretan diruaren eta aitonen semeen jerarkia soziala alderdi bakarrekiko gertutasunak emandako jerarkia batez ordezkatu zuten, elite estraktibo berriak nagusitu zirelarik. Estatu sozialistak izandako hirurogeita hamar herrialdetan (eta geratzen diren bostetan) goiko klasea alderdi komunistako karguek osatzen zuten, klase ertaina gainontzeko alderdikideek, eta klase baxua gainontzeko guztiak.

1911an bere *Alderdi politikoak* idazlanean Robert Michaels soziologoak oligarkien burdinezko legea enuntziatu zuen: erakunde politiko guztiek, demokratikoak zein ez demokratikoak, oligarkiak sortzeko joera agertzen dute ezinbestean. 'Erakundea esatea oligarkia esatea da' zioen, eta zein ere diren herriaren edo interes orokorren eliteak legitimatzeko erretorikak, dinamika hori beti betetzen zela ondorioztatzen zuen. Alderdi komunisten kasua, batik bat alderdi legal bakarrik izan direnean, prozesu hori nabaria da.

Alderdiko karguek, nomenklatura deitzen zutena, denda bereziak zeuzkaten erosteko, arruntak baino produktu anitzagoak eta hobeagoak zituztenak, etxebizitza handiagoak eta

hobeagoak, oporretan joateko turismo gune bereziak, erretiro pentsio bereziak, bidaiari joateko baimenak, autoak, ospitale bereziak eta era askotako pribilegioak.

Alderdikide arruntak Inperio Erromatarreko hiritar erromatarren antzekoak ziren, estatus pribilegiatu lauso bat zeukaten eta daukate, eta edonolako administrazioekin tratatzeko orduan (eta hori jarduera guztiak kontrolatzen dituen estatu totalitario batean ez da gauza makala) lehentasun guztiak. Enpresetan edo administrazioan karrera egiteko eta karguak okupatzeko ezinbestekoa da alderdi komunistako kidea izatea, inon idatzita ez egon arren.

Dena zen nepotismoa, dena kontaktuak izatea, dena sare klientelarrak, dena leialtasuna, ez baloreekin edo ideiekin, ezta interes orokorrek ere, une bakoitzean agintzen duenarekin baizik.

Diktadura guztietan gertatzen den modu berean, zer esanik ez diktadura totalitarioak direnean, herritar normala hutsaren hurrengoa da. Esate baterako, irla erosita zeukaten kapitalista eta mafioso ipar amerikarregandik ustez bertakoei herrialdea itzultzeko egin zen iraultza baten ondoren, Kuba komunistan kubatarrek debekatuta daukate Kubako hoteletan sartzea.

13.- Marxistek estatu totalitarioak eratzean kritika, eta horrekin hobetzeko gaitasuna, oztopatzen edo galarazten dute.

Leninek zera esan zuen, *Disentsurik ez da egongo alderdiaren barruan*, honekin kritikaren posibilitatea errotik ukatuz, eta hortik aurrera estatu sozialistetan inposatu zen binomio ideologikoari, zentsura-propaganda, bide emanez. Eztabaidarik ez, kritikarik ez, kazetaritzatik ez, datu objektiboak argitaratzerik ez, berritasunik edo proposamen berririk ez.

Prensa askatasuna (dakarren guztiarekin, ikerketa kazetaritza, eztabaida politikoa eta ekonomikoa, gertakarien berri zintzoa ematea, gardentasuna, administrazioen ekintzen azterketa eta miatze publikoa, anitza eta independentea, adierazteko askatasunaren plataforma izatea, eta abar luze bat) bi eratan debekatzen edo saihesten zen hemen ere: bata zuzena, zentsura eta medioen itxiera administratiboa edo sasi justizia-administrazio batek hala erabakita; bestea zeharkakoa, nola prentsa sortzeko baliabide materialak behar diren eta horien jabetza pribatua debekatuta dagoen, gobernuak komunikabide guztien jabetza dauzka.

Arlo akademiko guztietan egoera bera sortzen da: erakunde akademiko independenterik ez dago, guztiak publikoak baitira eta gobernuaren jabetzakoak, horrek ahots kritikoak isiltzea, ikerketa objektiboa ekiditea eta dotrina nonahi inposatzea oso erraza bihurtzen duelarik, erakunde ofizialen babesa eta sustapena eta finantziazioa eta lana kenduz, besterik gabe.

Idazle eta artista independentei dagokienez kritikoei antiiraultzaileak edo 'herriaren etsaiak' izatea leporatuta gulagetara, kontzentrazio-esparruetara, espetxetara edo ospitale psikiatrikoetara bidaltzen dituzte, edo arriskutsutzat jotzen ez dituztenean argitaletxeek (guztiak publikoak eta gobernuaren jabetzakoak direnak) sinpleki lanak ez dizkiete argitaratzen edo artistei ez diete lanak publikoki erakusten uzten, debeku edo zentsura formalik erabili beharrik gabe.

Disidentzia eta kritika isiltzeaz eta zapaltzeaz aparte estatu marxistentzat estatu totalitario guztientzat bezala informazioa eta kultura maneiatzea oso garrantzitsua da ('idazleak arimaren ingeniariak dira', zioen Stalinek), eta beraz buru-langile asko ohi dauzkate kontratatuta gobernu komunistek, 'kultur frontean' borrokan ari direnak (egiazki

gobenuaren gezur ofizialen segidak apaintzea eta saltzen saiatzea izan ohi da haien egiteko bakarra).

Bide horretatik komunikabide guztiak propaganda plataformak bihurtzen dituzte estatu sozialistek, inolako egia-etikarik edota zorroztasun kezkarik ez dauzkatenak, eta idazleak, akademikoak eta artistak propagandistak bihurtzen dituzte ere.

Adibide bat ipintzearen, Nikolai Vavílov zientzilari apartak Sobietar Batasuneko goseteak asaldatuta ikerketa lan itzel bat egin zuen landareen hautaketa genetikoaren arloan (aniztasun genetikoaren garrantziaren aitopenean eta barietate erresistenteen garapenean aurrelari bat bihurtu zelarik), eta emaitzak lortzen hasi zen. Halere, atzerriko kongresu 'gehiagietara' joan izanak susmoa piztuta, eta nekazaritzaren kolektibizazioaren porrota baten bati leporatu beharrez atxilotu egin zituzten, 1941an inolako bermerik edo defentsa posibilitaterik gabeko epaiketa sekretu batean kondenatu egin zuten, eta 1943an gosez hil zen gulag batean. Bere laguntzaile izandakoa Torfim Lysenko (Vavíloven urte askotan laguntza jarraia jaso ondoren salatu egin zuena), aldiz, 'biologia progresista' bat planteatu zuen zeinaren arabera kanpoko giroa aldatuz aldaketa genetiko bat eragin zitekeen landareetan. Azken teoria hori inolako funts zientifikorik gabeko tontakeria edo huskeria bat den arren (gaur pseudozientziazat jotzen dena), Lenin Akademiak 1948an Lysenkoren 'biologia progresista' Sobietar Batasunean irakas zitekeen teoria 'zientifiko' bakarra zela agindu zuen.

Muturreko baldintza horietan ez da zaila igartzen zer gertatu zitzaion filosofiari eta gainontzeko humanitateei eta gizarte zientziei estatu sozialistetan, baita zientziei ere. Baita marxismo berari ere, azkeneko teoriko marxista handia Lenin bera izan zelarik, sozialismo errearen aurreko eta hastapenetako pertsonaia bat.

Errepubliken kudeaketa publikoari dagokionean kritikaren debekuaren emaitzak hor daude, estatu sozialista ia guztiak berez erori ziren atzeritik inolako erasorik gabe.

14.- Sozialismo marxistak langileria enpresari kapitalistengandik askatzea agintzen du baina gero estatuaren esklabok bihurtzen dute.

Marxen ustean bere garaiko langileak enpresari kapitalisten zerbitzura enplegatuta zeudenak zapalduta zeuden, eta askatzea premia bat zen. Berak asmatutako gizarte komunista berrian gizasemea beste gizasemeekiko menpekotasunetik libre izango zen.

Egiantan gertatu zena alderantzizkoa izan zen, estatu sozialistetan langileak enpresen jabeen menpe egotetik praktikan estatuaren esklabok izatera igaro zirela. Edozein gauza eskuratzeko edo egiteko estatuko funtzionarioei erreguz (edo erosiz) egin behar zen eta egin behar da, bizitza aspektu nimiñoenak ere kontrolatzen zituen burokrazia erraldoi itogarri batean. Baita bizirauteko oinarritzkoenak ere, jan ahal izateko errazionamendu-liburuxka bat eskuratzeko, lan bat lortzeko, ospitale batean artatua izatea, bizitza bat lortzea... dena.

Estatu-jaunaren baimenik gabe ezin zer ezer egin, eta gutxiago oraindik arlo ekonomikoan ekimena suposa zezakeen edozer. Bidaiatzeko, lanaz aldatzeko, etxetik aldatzeko, ezkontzeko, gauzak saltzeko eta erosteko, eta abar, edozein gauza egiteko baimen ofizial bat eskatu beharra zegoen, eta eskuratzeko aldeko txostenak behar ziren, etxebizitza blokeko buruzagiarena, alkatearena, herriko edo hiriko alderdi bakarreko batzordearena, estatuko segurtasun atalarena...

Estatu sozialistan herria eta herriaren interesak (egiantan oligarkiaren eta oligarken interesak) inporta duena da, eta gizabanakoa ez da ezer, dena baitago subordinatuta ustezko interes kolektiboaren zerbitzura (alderdi bakarreko nomenklaturaren interesetara alegia). Horren ondorioz, gizabanakoa ez da helburutzat hartzen bere izaeran, ustezko interes kolektiboak lortzeko bitarteko bat bezala baizik, eta horrek pertsona estatuaren esklabo bihurtzen du.

Kapitalismoaren historian ez da enpresarik egon beraien langileen gain estatu sozialisten beraien herritarren gain zeuzkaten hil ala biziko boterearen erdia, eta kapitalismoaren langileak ez diote beren nagusiei edo gobernuei sozialismo errealeko herritarrek beren gobernuei edozer egiteko eskatu behar dieten baimenen erdia (eta hori korrupzioa eta baimenen erosketa aipatu gabe).

Horretan amaitzen du askapen mugimendu marxistak? Begi bistan dago baietz, estatu sozialista orotan agerian frogatu denez, eta gizaki batentzat ez dago alienaziorik ezta menpekotasunik handienak ekimena eta sormena galtzea baino; beste bati edozer egiteko baimena eskatzeko beharraz.

Are gehiago behar horiek eragindako pobrezia orokor batez egiturazko menpekotasun batean handitu egiten dituztenean.

15.- Marxek jabetza pribatua gaitz ororen erroa zela zioen, baina jabetza pribaturik gabe ez dago askatasunik, askatasun hori adierazteko bideratzeko eta gauzatzeko baliabide materialik ez dagoelako izaterik ondasun guztiak estatuarenak baldin badira.

Marxek jabetza pribatuak gizartearen bizitzan eragin ezkorra zeukala uste zuen, desparekotasunaren iturri nagusia zela eta, bereziki ekoizteko bitartekoen jabetza pribatuak, langileen esplotazioa eragiten zuela.

Estatu sozialista guztietan gizabanakoaren zenbait jabetza pribatuk toleratu egiten dira, arropa, altzariak, autoak izan dezaketenentzat, altzariak eta gizaseme batek pertsonalki erabiltzen dituen hainbat gauza. Aldiz, besteentzat zerbitzuak edo produktuak ekoizteko behar diren baliabideek, makinek eta tresnek, ekoizteko bitartekoak terminologia marxistan, jabetza publikokoak izan behar dute egiazko sistema marxista batean.

Horren ondorio batzuk aipatu ditugu dagoeneko, adibidez sistema sozialistetan komunikabide independenterik egon ezina, informazioa eta iritzia sortzeko, plazaratzeko eta hedatzeko behar diren baliabide materialak gobernuarenak direlako beti, edo edozer egiteko gobernuari baimena eskatu beharra, normalean ekintza gehienak gobernuaren jabetzak erabiltzea suposatzen duelako.

Funtsean askatasuna hitz ederra da baina erreala izateko jabetza behar du, hautuak aurrera eramateko orokorrean baliabide materialak behar direlako, norberarenak edo beste batenak, eta beste batenak diren unetik (beste bat hori gobernua edo estatua baldin bada ere) jadanik ez zara libre. Sinpleago eta hobekiago esanda, jabetzarik gabe askatasunik ez dago.

Marxen ideia gizakia desjabetzeak askatu egingo zuela planteatzen zuena erabat okerra da, egiaren kontrakoa alegia. Gizakiaren hautuek ondorio ekonomikoak izango dituzte ia beti, eta ondorio horiei aurre egiteko jabea ez dena jabea denaren menpe egongo da beti, desjabetzeak menpekotasuna baitakar.

Jabetzak boterea ematen du, hori ez du inork eztabaidatzen eta Marx berak hori azpimarratzen du. Hortaz jabea gizabanakoa bada berak dauka boterea, eta alderantziz

estatua baldin bada jabea estatuak dauka boterea eta gizabanakoa estatuaren menpe geratzen da, eta ez da libre. Ekuazioa sinplea da.

Herritarrak jabeak diren estatu batean gobernuak ez du jendearen zerbitzura dagoela kuestionatzeko paradarik izaten, jabeen menpe dagoelako bizirauteko. Alderantziz, gobernua jabea baldin bada herri desjabetu baten gainean eratuta dagoena oso goiz ahaztu ohi du nor dagoen noren zerbitzura, eta herritarrak bitartekok bezala ikusteko joera agertzen du aski azkar.

Pertsona jabeak, pobrea baldin bada ere, independentzia neurri bat dauka beti, txikia bada ere. Pertsona desjabetua zerbitzari bat da, menpeko bat, esklabo bat da estatu totalitario batean.

16.- Komunismoan jaberik ez dagoenez, pertsona guztiak estatuaren maizterrak dira eta herria menpekotasun egoerarik okerrenean dago edozein estatu kapitalistan baino.

Demokrazietan arlote izatea edo nekazaritza autosufizientea egitera mendira joatea edo nomada bezala bizitzea hautatzen duenak badu bide horiek hartzea eskatzen dituzten uko egiteak eta gabetasunak onartzeko adorea baldin badauka, eta ez dio inork, edo ez gobernuak behintzat, zergatiaz galdetuko, ezta konturik eskatuko. Pobre izanik ere, libre izango da, baina estatu komunistetan bizitza modu horiek ez dira onartzen antisozialak bezala ikusten direlako, eta zapaltzen eta zigortzen dituzte.

Kontua ez da bakarrik, hortaz, herritarrek desjabetzea jabe librerik ez geratu arte, ezta jabea (librea) izateko motibaziorik eta pizgarririk gabe produktibitatea erortzen dela latitude eta kultura orotan eta ondorioz pobrezia izurrite baten gisara kutsatu egiten dela jendearen oinarritzko askatasuna (eta bizitza), baliabideek ematen dutena, lapurtuz, kontua zera da ere bai, herritarra estatuaren maizter zentzu orotan bihurtzean bere bizitza ez dela gehiago berea eta kolektibitatearen zerbitzura eta menpe geratzen dela.

Egoera degradatu horretan badirudi pertsonak estatuari bere bizitza bera ere zor diola (izan ere suizidioa delitu bezala tipifikatuta egon zen estatu komunistetan, eta ofizialki atea zen sistema batean horrek gizabanakoa bere bizitzaren jabe ez zela -gobernua baizik- sinesmenak azal dezake soilik), eta kristauen pekatu orijinalaren moduan jaiotzez estatuarekiko zor batekin sortzen dela bere bizitza osoan ere ordain ezin dezakeena.

Sokrates berak pentsaera hori planteatu zuen (Platonen Apologiaren arabera) bere azkeneko orduetan, bere izan bera komunitateari zor ziola hain zuzen ere, eta beraz komunitateak hiltzera kondenatzen bazuen bidegabeki bazen ere patu hori onartu beharra zegoela, sortu zuen komunitatetik ihes egitea (eta hori egiteko aukera omen zuen) ez zuelako zilegitzat jotzen.

Halaber ondorengo greziarren eta erromatarren garaietatik pertsona banakoaren errespetua izan da zibilizazioen funtsa (Mendebaldean bederen zalantzarik gabe), gizabanakoa helburu bat dela berez eta ez bitarteko bat ustea, eta modernitatean hori izan da giza eskubideen,

demokraziaren eta zuzenbide estatuaren premisa hain zuzen ere, indibidualismoa horrela deitu nahi badugu.

Laburrago esateko, funtsezko ustea zeinaren arabera pertsonak ez dion inori ezer zor jaio izanagatik (bere gurasoez aparte, agian), ez jainko bati, ez tribuari, ezta estatuari ere, aitzitik, bere buruaren jabe dela.

Marxen testuetan askotan ematen du bera ere axioma horretatik abiatzen dela bere hausnarketetan, eta planteatzen dituen proposamenak gizabanakoa askeago egiteko asmoz plazaratzen dituela, baina bere metodologiaren aplikazioa (hamaika aldiz saiatua, sozialismo errealeko gizarteak ez direlako marxismoaren aizuntzeak izan, marxismoaren muina praktikan jartzeak baizik, ortodoxoagoak batzuk eta heterodoxoagoak beste batzuk, baina marxismoaren dotrinaren ardatz nagusiak aplikatzen zituztenak) kontrakora darama.

Izan ere, egia da abere sozialak garela eta besteen laguntza edota kolaborazioa behar dugula bizitzako gauza asko (eta garrantzitsuenak) egiteko, baina hortik haratago gizasemea ume kondiziora murrizten dituzte estatu sozialistek bere bizitza osoan zehar, estatuaren behar artifiziala nonahi sartuz edozer gauza egiteko, jateko, aterpetzeko, lan egiteko, ondasunak izateko, mugitzeko edota bidaiatzeko.

Izan ere gizarte post komunistetan herritarrak zailtasunak izan dituzte onartzeko irakatsi izan zieten estatuaren eta alderdi bakarraren behar etengabe hori ez zela erreala, eta beraien bizitzen ardura osoa eta ekimen gaitasuna berreskuratzeke.

17.- Marxistek gizarte kapitalistetako kriminalak gaixo sozialak direla diote, klaseen sistema bidegabeak eragindakoak, baina sozialismo errealeko estatuetan zigor gogorragoak eta luzeagoak jartzen zizkieten kriminal kopuru berdintsuei.

Teoria marxistaren arabera gizarte tradizionaleko delitugile gehienak sistemaren biktimak dira, egitura sozial bidegabe baten ondorioak (ailegatu gabe oraindik egungo kontrakultura hutsalera, kriminalak sistemaren aurkako heroitzat edo gerrilerotzat hartzen dituenak eta pelutxe mental horrekin oheratzen dena gauero) giro zuzen batean herritar eta langile gizabidetsuak liratekeenak. Behin kapitalismoak kausatzen omen duen esplotazioa, zapalkuntza, eta klaseen arteko gatazka gainditzten denean hurrengo (eta azkeneko) aro historikora igaro ondoren ez luke zertan kriminalik izan behar.

Egitan estatu sozialistek kriminal gehiago espetxeratuta izan dituzte (harritzekoa ez dena, estatua etxeko zoparaino sartuta izanik arau-hauste erreal edo imajinarioen zerrenda-amaigabea delako, eta giza-eskubideen eta taxuzko zuzenbide prozesalaren eta justizia administrazio baten ezean edozein salaketa anonimo kondena bat bihurtzea oso erreza da, ia beti tokatzen den loteria bat da), errepresio neurri gogorragoekin borrokatu dituzte lege hausteak eta espetxeratze zigor luzeak eta heriotza zigorra ohikoak eta orokortuak izan dira eta badira errejimen komunistetan.

Finean hau Marxen iragarpen guztien hutsegiteen artean kale egite handienaren alde bat da: komunismoak ez zuen gizakiaren izaera eraldatu, ez zuen jendea altruistagoa, zintzoagoa eta solidarioagoa egin berez dena baino, ez zion jabea izateko grina kendu pertsonari, eta ororen gainetik, ez zion sena kendu. Zenbait ikerketen arabera herrialde komunistetan lapurreta egiteagatik prozesatu zutenen askok zera argudiatzen zuten aitzakiatzat, ondasun publikoak lapurtu zituztela bestela hondatuko zitezkeelako desastrea zen ekonomia kolektibizatuan.

Marxen iragarpenaren hutsegitearen eta herrialde komunistengan delitugintzaren iraunkorraren aurreko gobernu komunisten erantzuna zein izan zen? Kriminalitatearen arazoari berpentsatu bat edo berraztertze bat eman eta zehatz-mehatz errealitate horri buruzko teoria marxistan zer zegoen oker ulertzen saiatzeko? Jakina ezetz, akats bakar bat

aitortu baino lehen hil. Errepresioa zurrundu egin zuten gizarte sozialista batean delinkuentzia barkaezina zela aitzakiarekin.

1938an Sobietar Batasunak gutxienez ia hiru milioi lagun zeuzkan espetxeratuta edo deportatuta, biztanlegoaren ehuneko 2,5a. Kuban 2011an ehun mila biztanletik 487 presondegietan zeuden, munduko tasarik altuenetakoa, eta Txinan ehun mila biztanletik 118 kartzeletan sartuta zeuzkaten.

Planetako berrogeita hamabost estatuetan heriotza zigorra legala da oraindik, eta horien artean geratzen diren bost komunistak, Txina, Kuba, Vietnam, Laos eta Ipar Korea.

Txinako Herri Errepublikak egun munduko exekuzioen ehuneko hirurogeia edo gehiago egiten du, hamar mila pertsona erailez batezbestekoan urtero, eta tiroz hil ondoren orain gutxi arte gobernuak balaren kostua exekutatuaren familiari kobratzen zion.

18.- Marxismo populistak azken urteotan banketxeen aurkako erretorika bat eta errelato bat osatu ditu, baino sozialismo errealeko estatu guztietan banketxeak daude.

Populismo marxistak banketxeak aukeratu ohi ditu arerio bezala kapitalismoaren barneko zapalkuntza eta esplotazio ekonomiko tresna nagusitzat jotzen dituelako, baina estatu sozialista orotan banketxeak egon dira eta badaude, dirua gordetzeko, epe laburrerako gordailuak epe luzerako maileguk bihurtzeko, ordaintzeko sistemak eratzeko, zirkulazioan dagoen diru kopuruaren masa ugaltzeko, eta bestelako oinarritzko finantza-eginkizunak ahalbideratzeko edozein ekonomia garatuan ezinbestekoak direnak.

Geratzen diren estatu komunista bakoitzean, Ipar Korean (10), Kuban (8), Txinan (ehundaka, horietako bost munduko hamar handien artean), Laosen (23) eta Vietnamen (49) banketxe ugari daude.

Halaber iraganean sistema komunista izan zuten hirurogeita hamar estatu guztiek banku zentralaz aparte banketxe ugari izan zituzten, eta bertan jendeak ohiko finantza eragiketa gehienak egiten zituen (ordainketak, kobratzeak, deposituak eta maileguak, besteak beste).

1919ko programan Leninek teoria marxista ortodoxoa aplikatzeko saio bat egin zuen dirua abolitzen ahalenginduz eta errazionamendu-liburuxkez ordezkatzuz, baina esperimenduak hiru urte iraun zuen soilik desastre bat (beste bat) izan zelako. Paradoxa bat dirudien arren, dirua eliminatzeko erabili zuten metodologia diru gehiago inprimatzea izan zen ekonomia errealekin inolako erlaziorik gabe (populista guztiek egin hori dutena, bide batez esanda, irtenbide 'erraza' alegia, pobrezia datorrenean diru gehiago fabrikatu eta listo, Venezuelako gobernu chavistak azkeneko urtetan egin duena esate baterako hango moneta erabat baliogabetu arte eta inflazio erraldoi kontrolaezina eragin arte), diru masa modu horretan handituz inflazioa izugarri altxaraziz, jakina.

1917an 21 mila milioi errublo zirkulazioan bazeuden Iraultzaren aurretik 1919an 225 mila milioi zeuden eta 1921an 2,3 bilioi. Errublo baten balioa 1/20000 gutxitzea lortu zuten lau urtetan, hori lorpen gogoangarritzat hartu nahi baldin bada. Hiri zein herrietan jende gehiena trukaketara itzuli zen. Esperimentuaren emaitzak eta bost milioi lagun gosez hil ondoren (lurren kolektibizazioaren eta gerra zibilaren eraginekin batera) Leninek eta bere gobernuak sistema ekonomiko komunista baztertzea erabaki zuten, eta 1922tik aurrera martxan jarri zuten Politika Ekonomiko Berriarekin (PEB) kapitalismora itzuli egin ziren, konpentsaziorik gabeko desjabetzeekin (horri estatu-kapitalismoa deituz) eta hauteskundeak lapurtu ondoren ezarri zuen diktadura politikoarekin jarraituz noski.

19.- Marxen iragarpenak kale egin dute, kapitalismoa ez da esku gutxi batzuetan kontzentratu, gizaki sozialista ez du kontsumoaren eskaera gutxitu eta sozialismo errealeko estatuek porrot egin zuten.

Marxen iragarpen guztiek huts egin zuten: kapitalisten kopurua ez zen urritu areagotu baizik, langileak ez ziren pobretu baizik eta egoera ekonomikoa hobetu egin zuten, eta horren ondorioz klase ertaina sortu zen, klase langileak ez zion komunismoari atxiki oro har, lan baldintzak ez ziren degradatu nabarmen hobera jo baizik, eta miseria ez zen handitu gutxitu baizik.

Friedrich Engelsen ikasle marxista kuttuna ("Kapitala"ren laugarren liburukia idazteko enkargua egin zion Marx beraren oharrak emanez, Marxek idatzita utzi zuen lehenengoa eta Engels berak idatzitako bigarren eta hirugarren liburukiei jarraipen bat emateko asmoz), Edvard Bernstein, horretaz konturatu zen, Manifestu Komunista argitaratu zenetik berrogeita hamar urte pasata (1848-1898) Marxek aurreikusitakoa ez zela bete eta berak iragarritakoaren kontrakoa gertatzen ari zela, eta Marxen iragarpenen huts egite orokorra aitortu egin zuen.

Egia nabari horiek aitortzeagatik marxista dogmatikoei "errebisionista" izatea leporatu zioten Bernsteini, gaur egun sozialdemokraziaren aitzat hartzen dena.

Geroztik, iraultza komunistak herrialde batzuetan nagusitu zirenean eta sozialismo errealeko estatuak eratu zirenean, Marxen aginduak gizaki berri bat sortuko zenari buruzkoa eta kontsumo beharretatik aske gizakia erabat eraldatuko zenari buruzkoa faltsuk bezala frogatu ziren ere bai, bertako biztanleak gainontzekoak bezain kontsumistak eta lehiakorrak zirela frogatu zuten eta ez zuten inolako aldaketa sakonik agertu beraien 'giza-izaeran'.

Azkenik, komunismoa historiaren azkeneko eta behin betiko aroa izatetik urrun, komunismoak porrot egin du gobernuan izan den estatu gehienetan. Gelditzen diren bostetatik hiruk sistema kapitalista hutsa erabiltzen dute ekonomian diktadurak izan arren (Txina, Vietnam eta Laos), eta beste biak, Kuba eta Ipar Korea, pobrezia gorrian murgilduta bizirauten saiatzen dira.

Kapitalismoaren eraginez planetan dauden pobrezia indizeak inoiz egon diren bajuenak dira, eta kapital handiaren mailan, aberatsen kopurua handitzen doa urtero eta munduko aberatsenen zerrenda aldatzen doa etengabe, pertsonak eta ondarea eman dieten negozio motak erabat eraberritzen delarik hogeitaz urtero gutxi gora behera. Gaur egun munduko hamar aberatsenen artean negozio teknologikoei (gehienetan beraiek sortutakoak) zor diete aberastasuna batik bat, eta jatorri xumeko pertsonak dira ia guztiak, orain dela hogeita hamar urte agertzen zirenen ondorengoak edo senideak ez direnak eta zeinen negozioek ez daukaten aurrekoekin inongo harremanik, horrek kapitalismoaren bere burua behin eta berriro errotik berrasmatzeko gaitasuna frogatzen duelarik.

Estatuaren desagerpenari buruzko iragarpenaz zer esanik ez, ia guztiak berez erori baino lehen sozialismo errealeko herrialdeetan historian egon diren estaturik handienak, burokratikoak eta pertsonen bizitzan intrusiboak izan zituzten.

20.- Marxista gehienentzat helburuak bitartekoak justifikatzen ditu, eta horregatik iraultza bortitzak, erailketak, lapurretak eta bortxaketak zilegiak izan daitezke kausarengatik egiten baldin badira.

Karl Marx jakintsu bat zen, zintzoa eta aditu aparta, baina bortizkeria justifikatzen zuen eta marxistek praktikan bortizkeria maiz erabili izan dute eta erabiltzen dute gaur egun oraindik.

1848ko Manifestu komunista hitz hauekin bukatzen da: *Komunistek desegokitzat jotzen dute beren ideiak era asmoak ezkutatzea. Beren helburuak dagoen ordena sozial osoa indarkeriaz irauliz bakarrik lor daitezkeela modu irekian aldarrikatzen dute. Klase zapaltzaileak iraultza komunista baten aurrean izu daitezke. Proletarioek ez dute ezer galtzeko beren kateak izan ezik. Aldiz, mundu oso bat daukate irabazteko.*

Vladimir Ulianov – Leninek zera esan zuen 1921an: *Ez dugu inoiz uko egin terroreari eta ez dugu inoiz egingo. Terrorea ekintza militar bat da oso erabilgarria suerta daitekeena eta borrokaren une batean ezinbestekoa, indarren egoera zehatz batzuetan eta baldintza zehatz batzuetan.*

Bortizkeriaren justifikazioa marxismoan beraz esplizitua eta argia da, baldintzarik, eskrupulurik eta ñabardurarik gabe.

Marxista-leninistek eta maoistek bereziki jokaera amoralak agertu dute orokorrean eta beraien xede ideologikoak lortzeko egiten zen edozein ekintza justifikatzeko, iraultza bortitzak, bortizkeria eta terrorismoa barne, baita lapurreta sistemakoak ere, ‘desjabetze’ eufemismoaren justifikatuak.

Behin boterea eskuratuta, estatu arrazoiak eta ustezko ‘interes orokorra’k edozer ekintza justifikatzen du, morala edo amoralak, pertsonentzat izango dituen ondorioak planteatu egin gabe (hori marxistentzat milikeria burges txikia bailitzateke).

Sobietar Batasunean 1929 eta 1953 artean 30.777.975 pertsona afusilatu egin zituzten disidente politikoak izateagatik, gulagetara bidali zituzten milioika pertsonez aparte.

Kuban Fidel Castro Habanan sartu ondoren, 1959an, 550 lagun afusilatu zituzten. Che Guevarak zera esan zuen Nazio Batuetan: *Guk hemen ezaguna den egia bat aitortu behar*

dugu, munduaren aurrean beti adierazi duguna: afusilatu egiten dugu, bai, eta afusilatzen jarraituko dugu beharrezkoa den bitartean. Gure borroka hil arteko borroka bat da. Guk badakigu zein izango litzateke galdutako guda baten ondorioa eta harrek ere jakin behar dute zein den gaur Kuban galdu duten gudaren ondorioa.

1917ko iraultza sobietarretik aurrera gertatutako iraultza komunista guztietan milioika pertsonen kopetako izerdiarekin (berea edo bere guraso edo arbasoena) eskuratutako jabetza gehienak kendu zizkieten ustezko desjabetze prozesuetan, trukean inolako ordainik eman ez zieten lapurreta hutsak izan zirenak.

Armada sobietarrak bi milioi emakume bortxatu zituen 1944-1945an, Bigarren mundu gerran (beraiek hasi zutena 1939an, berriro esan behar dugu, Polonia aurretiko probokaziorik edo aitzakiarik gabe Alemania nazirekin batera inbaditu zutenean).

Beste maila batean, Txinan pertsonaren erabakiekiko inolako errespeturik ez duten politikak aplikatu izan ditu errejimen komunistaren historia osoan zehar. Gurasoei haur bakar bat baino gehiago izatea debekatzen zien araua 1982tik 2015ra egon zen indarrean. 1958tik gaur arte *Hukou* izeneko sistema batek (biztanleak bi kastetan sailkatzen dituen, herrikoa edo hirikoa, pertsonen sailkapen horiek oso praktika tipikoak direlarik estatu totalitarioetako ingeniarietza sozialarenak) biztanleak herrietatik hirietara libreki emigratzen galarazten die.

21.- Marxismoak talde sozialen arteko (klaseen arteko borroka) gorrotoa eta gatazka eragiten eta bultzatzen du.

Marxek garatu zuen klase sozialen teoria oso eztabaidagarria da. Jakina neolitikoan hiri zibilizazioa sortu zenetik aberatsak eta pobreak egon direla komunitateetan, boteretsuak eta xumeak, jauntxoak eta bilauak, baina Marxek garai historiko bakoitzak determinatzen zuen gizartearen egitura eta gainegitura agian gehiegitxo teorizatu zuen.

Bestaldetik, paradoxikoki, Marxen gizartearen klaseen gaineko ikuspegia ausaz sinpleegia da, hertsiki ekonomikoa izateaz aparte jabetzaren inguruan zentratuegia den aldera: jabeak (burgesak, handiak eta txikiak, ekoizpenerako bitartekoen jabeak) klase bat dira eta gainontzekoak beste bat. Hori sistema kapitalistan, aurreko sistema historikoen pertsonen banaketa posizionalaren ondorengoa zena, Antzinatean nagusiak eta esklaboak, Feudalismoan jaunak eta jopuak.

Mugikortasun soziala ez zuen ikusten Marxek, alderantziz klaseak interes talde egonkorrek bezala ikusten zituen (hein handi batean jaraunspen legeriaren ondorioz) eta antzematen zuen aldaketa bakarra jabe handien klasea ustezko urritze prozesu batean sartuta zegoela zen, kapitalismoaren barne dinamika berak eragina, eta kapitalaren ustezko kontzentrazioaren emaitza giza (esan bezala azterketa eta iragarpena erabat okerrak frogatu zirenak, plazaratu zuenetik aurrera kontrakoa gertatu zen eta gertatzen jarraitzen du).

Nola ulertuko luke Marxek munduko hamar pertsona dirudun guztiak jatorri xumekoak izatea eta orain dela hogeita hamar urtean zerrendan zeudenekin inolako harremanik ez izatea? Mugikortasun sozialaren kontzeptu bera ere ez zuen ulertzen (bere garaian ere gertatzen zen, jakina)? Nola azalduko luke korporazio kapitalista handien jabetza milioika jabe-akziodunen artean banatu izana?

XIX. mendean zendu zenez ez zuen bere akatsaren tamaina (eta bere jarraitzaile sektario dezenteren tema) hautemateko paradarik eta sortu zuen marko soziologiko teoriko eskasa eta okerra errebisatzeko, baina alde bat badago guztiz okerra izateaz gain izugarri kaltegarria (milioika pertsonen erailketa eragiteraino) suertatu zena: ikusten zituen klase horien (zeinen

izan bera ez dagoen batere garbi, eta soziologo askok kuestionatu egiten duten) arteko harremanen izaera berez gatazkatsua hain zuzen ere.

Marxen aburuz jabeak langileak gordinki esplotatzeaz besterik egiten ez zutenez, azken horien lanaren gainbalioa (kontzeptu hau erabat hutsala den arren, azaldu dugun bezala) ustez lapurtuz, Marxen pentsamoldearen arabera bi taldeen artean ezin zitekeen inolako kolaboraziorik edo erlazio positiborik izan inoiz, antagonismoa, gorrotoa, gatazka eta, argi esateko, gerra etengabe bat baizik. *Borroka bat etapa bakoitzean errejimen sozial osoaren eraldaketa iraultzailera eramaten duena edota bi aldeen erabateko sarraskira*, zioen.

Komunista izan dena edo dena, edota komunistak pertsonalki ezagutu dituen edo jendaurrean iritziak plazaratzen entzun dituen badaki jabeekiko (beste arrazoirik gabe) zer mailako erresumina eta herra darizkien beren diskurtsoei. Gero eta gutxiago entzuten den arren, zenbat sektariok eta zenbat behartsu mentalak aski baitute onartzen ez dutena edo komeni ez zaiena gainditzeko ‘burges txikia’ dela esatearekin edo pentsatzearekin (pentsatzearena lizentzia lirikoa izanik, noski).

Pentsamolde horren eragin praktikoak hogeigarren mendean (eta gure mendean ere oraindik sinestezina badirudi ere) ez ziren desjabetzeak izan bakarrik. Stalinen gobernuak 600.000 lagun erail zituen ‘kulak’ izateagatik bakarrik, hau da nekazari jabe txikiak, eta horren ondorioz ustez Iraultzaren kontrakoak eta progresurako zama bat izan litezkeelako suposatzen zuten ustezko arriskuarengatik. Khmer gorrien Kanbodian jabe izateak heriotza ziurra bermatzen zuen, eta Txinako Iraultza kulturean (1966-1976) milioika jabe txiki exekutatu zituzten publikoki ‘aberasten saiatzeagatik’, azken hamarkadetan diktadura komunista berak bedeinkatzen duen jokaera bera dena, hain zuzen ere.

22.- Sozialismo errealeko sistemek milioika pertsonak gosez hil ditu.

Iraultza Sobietarren ondoko gosetean, 1921an, bost milioi pertsonak hil ziren gosez, eta kanibalismoa Sobietar Batasun osoan orokortu egin zen.

1930ko hamarkadan Ukrainako Holomodor-en 1,5 eta 12 milioi pertsonak gosez hil zituen komunismo sobietarrak.

1950-1960ko hamarkadetan Txinako Aurrerako Jauzi Handian komunismoak 24-55 milioi pertsonak hil zituen gosez.

1983an eta 1984an milioi bat pertsona hil ziren gosez Etiopia sozialistan.

1990ko hamarkadan Ipar Koreako errejimen komunistak bere biztanleriatik 800.000 – 2.000.000 lagun hil zituen gosez.

Eta hori jakina gainontzeko biztanlegoaren pobrezian eta esklabotasun politikoan hondatutako bizitzak eta belaunaldi osoak kontuan izan gabe.

23.- Sozialismo errealeko estatuek milioika pertsonak barne purga politikoetan erail dituzte.

Aipatutako 1930ko hamarkadako Ukrainako gosetea, Holomodor, non 1,5 eta 12 milioi pertsonak gosez hil ziren, adituen ustean Stalinen gobernuak planifikatua izan zen eta beraz nahita eragina.

Stalin hil zenean Sobietar Batasunean 1945tik 1953ra gulagetan 300.000 mila lagun hil zirela aitortu zuen bertako gobernuak (5,2 milioi pertsona espetxeratuta zeuden gulagetan 1953an). Arrazoi politikoengatik kondena judizialen ondorioz (judizioz kanpokoak kontuan izan gabe) kalkulu ofizialek diote 1929 eta 1953 artean 30.777.975 pertsona exekutatu zituztela.

1948an Txinako iraultza komunistak garaitu ondoren bi milioi lagun erail zituen lehenengo urteetan.

1966tik 1976rako Txinako Iraultza kulturalak 750.000 – 1.000.000 pertsona inguru erail zituen.

1960ko eta 1970ko hamarkadetako Vietnamgo gerran eta gerraondoan komunistek ehun mila zibilak erail zituzten, berrehun mila desertore afusilatu zituzten eta 165.000 gerra preso inguru konzentrazio-esparruetan hil ziren.

1975tik 1979ra khmer gorriek Kanbodiako genozidioa egin zuten 1,5 edo 3 milioi pertsonak erail zituzten zazpi edo zortzi milioi pertsonako biztanlego batetik, kalkulu kontserbadoreen arabera biztanleriaren laurden bat, lau milioi pertsona hirietatik deportatzeaz aparte eta beste izugarrikeria asko egiteaz gain (Noam Chomskyk adibidez genozidioa ukatzen zuen bitartean, CIAren propaganda kanpaina bat zela esanez).

Komunismoaren liburu beltza idatzi zuten historiagileek kalkulatzan dutenez errejimen komunistak ehun da hoge milioi pertsonatik gora erail zituzten munduan, besteak beste hirurogei milioi Txinan, hoge milioi Sobietar batasunean, bi milioi Ipar Korean, laurehun mila pertsona Polonian, hirurehun eta hirurogei mila Errumanian, hirurehun mila Bielorrusian, ehun mila Ekialdeko Alemanian, ehun mila Lituania, ehun mila Laosen, 70.000-100.000 inguru Bulgarian, hoge mila Txekoslovakian, bost mila Albanian, eta abar luze bat.

Historian zehar Stalin da ideologia komunistako pertsona gehien hil dituen, Purga handia edo Izu handia izenekoan eraildako 30.777.975 pertsona gehienak alderdi komunistako kideak zirelako, ustez disidenteak, ustez ez leialak, ustez ordoxoegiak edo auskalo, leku okerrean une okerrean zeudenak, eta leku oker eta une oker nonahi uneoro zeuden garai hauetan (atzerrian denbora gehiegi eman izana, Sobietar Batasuneko diplomatiko edo agente bezala izan bazen ere, gutxiengo etniko batekoa, arbaso jabeak izana, eta abar amaiezin bat).

24.- Sozialismo errealeko estatuek eta terrorismo marxistek milioika pertsonak erail ditu gerretan eta gatazketan.

Marxismoa berez ideologia unibertsal bat izan arren, estatu komunistek gerra nazionalistak hasi eta jarraitu izan dituzte.

40-100 milioi hildako eta beste zauritu eta elbarri kopuru itzelak eragin zituen Bigarren mundu gerra Sobietar Batasunak probokatu zuen Alemania naziarekin batera, biek elkarrekin eta aldi berean Polonia inbaditu zutenean 1939an.

Ipar Koreak Hego Korea inbaditu zuen 1950-1953ko gerra hasiz, hiru milioi hildako eragin zituena eta oraindik itxita ez dagoena, bake itun iraunkor bat ez dagoelako sinatuta.

Ipar Vietnamek Hego Vietnam inbaditu zuen Frantziatik deskolonizatu ondoren beste hiru milioi hildako eragin zituen hogeituro urteko gerra luze bat (1955-1975) abiatuz. Herrialde osoa batzea lortu zuten hauteskunde librerik gabeko diktadura batean, prezio izugarri bat ordaintzearen truke. Gerra hori garatzen zen bitartean, 1958an, Ipar Vietnamek Laos inbaditu zuen ere beste 60.000 hildako inguru kausatuz, eta 1970. urtetik aurrera Ipar Vietnam baita Hego Vietnam eta Estatu Batuak Kanbodiako gerra zibilean parte hartzen hasi ziren, gatazka hori (geroztik khmer gorrien genozidiora eramanez) eskalatuz.

Vietnam dagoeneko batuak Kanbodia inbaditu zuen khmer gorrien genozidioa bukatuz eta 1978-1991 bitarteko gerran sartuz, beste 230.000 lagun ingururi bizitza kostatu zitzaiona.

Terrorismo marxista dagokionez, Euskal Herrian sortutako ETak 854 hildako, 3.000 inguru zauritu, 86 bahitu eta ehundaka estortsionatu probokatu zituen. Espainian GRAPOk 93 lagun erail zituen eta FRAPEk bost. Italian Brigada Gorriek 75 lagun hil zituen, Alemanian Armada Gorriko Frakzioak pertsona erail zituen (bandako hogeituro kide barne), Grezian Azaroaren 17a Erakunde Iraultzaileak 23 pertsona erail zituen. Irlandan, IRAk 1.700 lagun hil zituen. Jakina datu horiek ez dute zenbatzen estatu-terrorismoak eta eskuin muturreko eta paramilitarren terrorismoak eragindako biktimak, hildakoak, zaurituak eta torturatuak.

Marx ezin da inondik inora bakezaletzat hartu eta gatazken eta iraultzen ondorio bortitzak esplizituki aurreikusten eta onartzen zituen, baina bere testuei begira klaseen arteko liskarrez eta iraultza azkarrez ari zela ematen du, eta ez zuela antzematen bere ideologiak eragingo dituen sarraskien eta bortizkeriaren tamaina eta zabalera.

25.- Marxismoa nazionalismoak gainditzeko ideologia unibertsalista bat bezala saltzen du bere burua (munduko langileak bat zaitezte!) baina nazionalismoak bultzatu ditu nonahi, eta ez du estatu bakar bat desagerrarazi.

Marxismoaren jatorrizko bokazioa munduko herrialde guztietako klase langilea (ustezko klase langilea) batzea eta klase jabeekiko ustezko gatazkan indarrak uztartuz garaipena bermatzea eta, behin komunismoa ezarrita, estaturik gabeko komunismo unibertsaleko mundu batean planetako biztanleria osoa elkartuta bizitzea.

Eta egia da garaikidea izan duen nazionalismoarekin erkatuta mugimendu marxistek, komunistak, sozialistak eta sozialdemokratak erlijioen mailako indar unibertsalistak bezala agertu direla, batik bat anarkismoa gainbeheran sartu zenetik XX. mendeko bigarren erdian.

Hala eta guztiz ere, estatu sozialistek eta alderdi komunistek eta sozialistek jokaera nazionalista izan dituzte maiz beren politiketan, hasiera batetik, eta askotan xenofobia (holokausto bat egitera iritsi gabe Sobietar Batasuna historia garaikidean errejimen antisemitenen artean egon da, eta Ceaucescuren Errumaniak bere “judutarrak” urdeen, ardien, behien eta diruaren truke ‘saltzen’ zizkion Israelgo estatuari), eta ez zuten estatu bakar baten desagerpena eragin, aitzitik, jarauntsian jaso zituzten estatu guztiak sendotu eta neurririk gabe handitu zituzten baizik.

Nazioarteko gatazka edo gerra batean sartuta egon direnean, patriotismoari eta patrioterismoari hel egiten zieten berehala marxistek, Stalinek berak probokatutako (naziekin batera) Bigarren Mundu Gerran egin zuen bezala errusiar nazionalismo zaharra zinikoki erabiliz eta sustatuz, aurreko urteetan armada gorriko ofizial gehienak exekutatu ondoren nazionalistak zirela leporatuta (eta era horretan geroko nazien inbasioa erraztuz).

Gaur egungo Ipar Koreako errejimenak komunismoaren desagerpen eta ospe-galtze orokorretik aldentzen saiatzeko eta oldarkorragoa bilakatu den giro batean biziraute saiatzeko dagoeneko komunistak ez direla aldarrikatzen dute, komunismoaren ordeztako jatorra liratekeen ‘jutxe’ izeneko ustezko ideologia praktikatzan dutela -eta betidanik praktikatu dutela- dio, ikonografia komunista osoa eta diktadura marxista totalitario baten metodologia guztiak erabiltzen jarraitzen duen arren.

Bitxia bada ere, sarritan gertatzen da ideologia komunista duen pertsona batekin hizketan jardutean komunismoaren beste herrialdetan eragindako desastreak, bortizkeria ez beharrezkoak eta krimen hutsak ere onartzea, baina zera erantzutea, 'hemen ez da horrela izango', bertako sozialismoa desberdina izango deneko ustean edo planteatu nahian, jatorragoa, demokratikoa, pertsonei errespetuz jokatu duena, eraginkorra era gauzak zentzuz antolatuko eta bideratuko dituen, bertako sozialismoaren ustezko bertsio ona alegia. Inori ilusioa kendu nahirik gabe, ausaz latitude guztietako bertako bertsio zintzoarenganako sinesle horien arazoa ez datza bere herriaren ezagutzea uste duten dohain apartetan, beste herrien eskarmentuaz ez dakienean baizik. Hirurogeita hamar herrialde eta kultur desberdinetan komunismoak ez baldin badu pobreziaz, beharraz, goseaz, totalitarismoaz eta zapalkuntzaz besterik lortu ez al da apur bat ausarta zure herri heroiko hautatu zoragarriaren kasuan bestelakoa zatekeenik suposatzea? Zenbat saio, hildako, bizitza hondatu, sufrimendu eta denbora galdu behar al da agian gaizki dagoena ez dela kasu bakoitzeko praktika edo aplikazioa formula teoriko bera baizik onartzeko?

Inolaz ere, ez al da jarrera hora muturreko nazionalismoa, chauvinismoa ez esateko?

26.- Nazionalismo komunista horien eraginez, estatu sozialistek deportazio masiboak eta hizkuntza gutxituen eta gutxiengo nazionalen aurkako neurri sistematikoak hartu zituzten.

Sobietar batasunean politika ofizialak eta propaganda aniztasun etniko eta kulturala goraipatzen eta ustez babesten zuen bitartean, praktika oso bestelakoa izan zen:

- Doneko kosakoak deportatu zituzten 1920an.
- Volgako alemaniar guztiak Siberiara deportatu zituzten 1941an.
- 1939tik 1941ra arte eta 1944tik 1945ra arte milioika alemaniar, poloniar, ukrainiar, letoniar, lituaniar, estoniar, moldaviar eta besarabiar deportatu zituzten.
- 1943an Krimeako tartaroak deportatu zituzten.

Esan bezala Kanbodian 1975tik 1979ra lau milioi pertsona deportatu zituzten hirietatik.

27.- Estatu sozialistek elkarren arteko gerrak izan dituzte.

Marxismoaren eta komunismoaren ustezko bokazio unibertsalistatik eta antinazionalistatik, eta estatuak desagerrarazteko programatik espero zitekeen gutxienekoa sozialismo errealeko estatuen arteko harremanak bederen baketsuak izatea, baina hori ere ez zen bete, eta estatu komunistek beraien arteko gerra dezente izan zituzten.

Sobietar Batasunak Hungaria komunista inbaditu zuen 1956an Budapesteko iraultza zapaltzeko eta Txekoslovakia komunista inbaditu zuen 1968an Pragako udaberria zapaltzeko, bi kasuetan bere politikak inposatzeko eta jokaera inperialista hutsak agertuz.

Sobietar Batasunak eta Txina komunistak bata bestearen aurkako gerra bat izan zuten 1969an mila bat pertsona hil zituena.

Txina komunistak eta Vietnam komunistak bata bestearen aurkako gerra bat izan zuten 1979an 150.000 hildako inguru eragin zituena.

Vietnam komunistak Kanbodia komunista inbaditu egin zuen 1978 eta 1991 urteen bitartean.

28.- Sozialismo errealistako estatuek ez dute komunismoa aplikatu, estatu kapitalismoa eta sistema kapitalista baizik.

Iraultza komunisten giza kostua ikusita, harrigarria da zein azkar abandonatu zen marxismo ekonomikoa aplikatzeko asmoa. Edo ez, kolektibizazioen efektuak ikusita. 2017ko Iraultza sobietarraren lehenengo urteetako saio sozialisten emaitza esan bezala bost milioi gosez hildako izan zen, eta ondorioz ordurarte marxista dogmatikoa izandako Leninek (iraultza komunista bat historian lehenengo aldiz gauzatzea bere bizitzaren helburutzat hartu zuena, eta lortu egin zuena) kapitalismora itzultzeko programa martxan jarri zuen berehala.

Beharbada harrigarriagoa da Txinako kasua, berrogei urteko porrota eta berrogei ta hamabost milioi gosez hildako behar izan zituen kapitalismo hutsean sartzen hasteko (geroztik lortutako arrakasta itzelak eta munduko bigarren potentzia ekonomikoa izatea lortu izana kontuan izanik ere).

Azkeneko hamarkadetan sistema kapitalista hutsean sartu diren sistema formalki komunitez aparte (Txina, Vietnam eta Laos), estatu kapitalismoa nagusitu zen sozialismo errealeko beste estatuetan.

Zer da estatu kapitalismoa? Ba diktadura geratzen da, desjabetzeak geratzen dira, zapalkuntza eta dotrinamendua geratzen dira, baina desjabetutako-lapurtutako ondasun pribatu guztiekin estatuak enpresa kapitalista bat bezala jokatzaren hasten da, estatu enpresak sortzen, inbertsioak, ekoizpenak, banaketak eta proiektuak (azpiegiturak eta abar) erabakitzen eta batez ekonomia osoa planifikatzeari ekiten diote modu zentral batez.

Planifikazio zentrala berez ez du zertan katastrofikoa izan behar beti. Alderantziz arlo batzuetan eta baldintza batzuetan baliabide ekonomikoen asignazio efektiboak eta proiektu handiak posible egiteko kontuan hartzeko metodologia izan daiteke, eta Stalinismoan hazkunde ekonomiko nabarmenak lortu zituen.

Halere estatu kapitalismoko planifikazioak hiru arazo nagusi ditu jarduera ekonomikoa antolatzeko sistema bezala:

a) Alde batetik egiazko merkatuak ez dagoenez eskaeraren eta eskaintzaren elkarrekintzaz sortzen diren produktu eta zerbitzuen prezioak ez dago jakiterik, eta prezioak esan bezala hautu arrazionalak egiteko ezinbestekoa den informazio iturriak garrantzitsuena da.

b) Beste alde batetik, estatu sozialistak egiten saiatzen diren moduan asmoa dena planifikatzea baldin bada eskaera erabat ezagutu behar da, hau da, kontsumitzaile guztien (biztanle guztien) beharrak, eta hori berriro ere egiazko merkatu bat gabe non kontsumitzaileek beren nahiak erakuts ditzaketen ezinezkoa da, ekonomia planifikatu batean eskaintzak eskaeraren tamaina determinatzen duelako, gaizki eta beste aukerarik ez zaiolako geratzen kontsumitzaileari eskaintzen dena hartzeaz beste.

c) Azkenik planifikazioa ez da baliabideak asignatzeko merkatua sistema bezain ona eta efizientea, eta horrek epe ertainean eta luzean hazkunde ekonomikoan alde nabarmenak eragiten ditu.

Edozein moduan ere, puntu honetan interesatzen zaigunerako, Marxek diseinaturako komunismo ekonomikoa utopia aplikaezin bat da saiatu izan den bakoitzean porrot egin duena eta pobrezia, gosea eta behar gorriak eragin dituena. Historikoki esanguratsua da estatu sozialistek komunismo ekonomikoa abandonatu arren diktadura politikoarekin eta herriak zapaltzen jarraitu izana.

Marxismo ortodoxoari heltzen saiatzen den gaurko Kuban ere kapitalismo forma batzuk (negozio txikiak, tailerrak eta jatetxeak bezala, partikularren arteko etheen salerosketa, eta beste batzuk) toleratu egiten dira egoera ekonomikoa apur bat arindu nahian.

29.- Komunistek ez dute inoiz komunismoa aplikatzen, eta komunismoa aplikatua izan zen momentu bakarrean, desastre bat izan zen eta kapitalismora itzuli ziren, baina askatasun ekonomikorik eta eskubide ekonomikorik gabe.

Iraultza komunistek eta sozialismo errealeko estatuek esan bezala ez dute inoiz komunismoa aplikatu, horretarako bidean omen dagoen sozialismoa baizik, eta oso gutxitan neurri egiatan komunistak aplikatu dituzte, estatu-kapitalismoa, sistema mistoak eta, azken urteotan, kapitalismo hutsa baizik (baina demokraziarik gabe eta eskubide politiko eta ekonomikorik gabe).

Saio bakarrenetakoa 1918 eta 1922 urtean Sobietar Batasunean Bujarinek ezarritako 'gerrako sozialismoa' izan zen, komunismoari egiazko hurbilketa bat. Eraitza historiako desastre ekonomikorik handiena izan zen: 1914tik 1921a arte nekazal produkzioa ehuneko 57a jaitsi zen. Azienda kopurua 1916tik 1922ra heren bat jaitsi zen, eta landutako luraren kopurua ehuneko 35a jaitsi zen tarte berean.

Eraitza ikusita gobernu sobietarrak komunismoa utzi, Politika Ekonomiko Berria (PEB) 1921an martxan jarri zuen eta geroztik askatasunik gabeko kapitalismoa ezarri zuten sistema ekonomiko bezala 1990an Sobietar Batasuna suntsitu zen arte.

Haatik sistema misto, erdi kapitalista, sasi kapitalista, edo kapitalista hutsetan, funtsezko osagai bat falta da, eskubide ekonomikoak hain zuzen ere.

Demokrazia egiazko demokrazia izateko ez duelako bakarrik demokrazia politikoa izan behar, hauteskunde libreekin, prentsa eta iritzia libreekin, giza eskubideekin, botere dibisioarekin eta parte hartze politikoa bermatzen edo behintzat ahalbideratzen duena, demokrazia ekonomikoa izan behar du ere, kontsumo demokrazia edo merkatu demokrazia deitzen dena, eta horrekin lotuta datozen eskubide ekonomikoak errespetatu eta bermatu behar baititu: jabe izatea, lanbidea eta lanpostua hautatzea, produktu eta zerbitzu sorta batean norberak erosi nahi duena hautatzea (arlo horretan zerbait erostean erositako produktuaren edo zerbitzuaren aldeko bozka ematen dela esaten da metaforikoki, beste produktu eta zerbitzu guztiak baztertuz eta modu horretan kalitatea eta kontsumitzailearentzat benetan erabilgarriak suertatzen zaizkio ekoizpenak bultzatuz), bizilekua eta etxebizitza aukeratzea,

negozioen jabe edo akzioduna izan ezker argibidea ekonomikoa eta kontu garbiak eta auditatuak jasotzea, eta oro har herritarren erabaki ekonomiko autonomo eta libreak hartzeko eskubide guztiak.

XX. eta XXI. mendeetan egon dira diktadura autoritarioak sistema kapitalista onartu dutenak (zenbaitetan planifikazio saioak egin arren) eta nonbait eskubide ekonomikoak eta merkatu demokrazia errespetatu dituztenak, baina gehienetan eskuinekoak edo errejimen militarrek izan dira, eta inoiz ez diktadura komunistak azken urteotan kapitalismo hutsean sartu direnak salbu (Txina, Laos eta Vietnam).

Estatu sozialistak nahiz eta kapitalismora edota estatuk kapitalismora itzuli diren diktadura politikoak zein ekonomiak izaten segi zuten eta segitzen dute, zeinetan estatuaren makina burokratikoak herritarrari agintzen zion eta dion non bizi, zertan lan egin, zer erosi, eta zeren jabe izan daitekeen.

30.- Sozialismo errealeko bideragarriak suertatu diren estatu bakarrik kapitalismoari atxiki diotelako da (Txina, Vietnam eta Laos).

Den Xiao Ping-ek jabetza pribatua onartzen hasi zen 1978an, sistema ekonomiko sozialista osoa baztertuz, 'ez du axola zein kolorekoa den katua saguak harrapatzen baditu' lelopean.

Kapitalismoan sartu zirenetik hiru herrialde horien giro ekonomikoa erabat aldatu egin da. Txinan 1978tik 850 milioi lagunek pobrezia atzean utzi dute eta miseria ia gizartetik desagertu egin da (gogoratu egin beharra dago 1950ko hamarkadan 55 milioi pertsona gosez hil zirela eta 1953an biztanlegoaren ehuneko 88a pobrezian bizi zela). 1978tik 2010ra Txinako ekonomiak urtero ehuneko 9,5a hazi zen, eta 2020an munduan ekoizten ziren produktuen laurden bat Txinan egin zen.

Vietnamgo gobernu komunistak beranduxeago hazi zuen ekonomia ireki baterako trantsizioa, 1986an, eta ordutik pobrezia tasa anitz murrizten lortu du, oraingoz biztanlegoaren ehuneko hamabian utzi arte. Vietnamgo ekonomiak 1986-2008 tartean urtero ehuneko zortziko hazkundera izan du urtero batz bestean, eta 2008ko krisialditik gaur arte ehuneko seikoa.

Laosen kasuan Vietnamekin batera hasi ziren kapitalismorako bidean 1986an, antzeko ondorioekin, ordutik gaur arte *per capita* errenta seikoiztu egin duelarik.

Beste bidean, estatu kapitalismoan jarraitu izan duten bi estatuak, Kuba eta Ipar Korean, pobrezian murgilduta daude oraindik. Kuban elektrizitate itzalaldiak egunerokoak dira, azpiegitura publiko gehienak zaharkituta daude eta egoera kaskarrean, umeak lanean ikusten dira azken bolada honetan eta 2024an lehengo aldiz gobernuak laguntza eskatu dio Elikagaien Mundu Programari.

Ipar Koreak prentsa librerik ez izanik eta herrialde itxia izanik ez du datu objektiborik ematen eta gobernuak ematen dituen datu ofizial eskasak ez dira fidagarriak, baina 1990ko hamarkadan esan bezala 800.000 eta bi milioi artean pertsona gosez hil zen.

Historia-fikzioa izango litzateke planetan geratzen diren bost estatu sozialistetako hiruk kapitalismoaren aldeko hautua egin izan ez bazuten zer gerta zatekeen asmatzea, baina geratzen diren kopuru bakan horietatik, garai batean zeuden hirurogeita hamar estatu sozialisten ondorengoak edo hondarrak, gehiengoak sistema ekonomiko marxista baztertzea erabaki izana (emaitza bikaineekin) oso esanguratsua da. Ez dirudi XXI. mendean Kubako, Ipar Koreako eta Venezuelako diktaduretako gobernuez aparte beste inork sistema ekonomiko sozialistarengan sinisten duenik, egiatan hori sinisten badute eta botere autoritarioa mantentzeaz gain beste kezkarik baldin badute. Ipar Koreako, Kubako eta Ipar Koreako herrien iritzia edo sinesmena zein den tamalez ez dakigu, adierazteko modurik ez dutelako.

31.- Engelsek komunismoa iritsiko zenean estatua berez desagertu zela iragarri zuen baina ez zen inoiz gertatu, estatu komunista historiako estaturik handienak eta gizarteetan eta bizitza pribatuan intrusiboenak izan dira eta badira, eta denboraren poderioz handiagoak eta intrusiboagoak bihurtzen ziren.

Ez Marxek ez Engelsek ez zuten onartzen anarkistek egiten zieten kritika estatistak zirela leporatuz, zera argudiatzen zutelarik, komunismoa nagusituko eta gauzatuko zenean estatua berez 'disolbatuko' zela (*sich auflöst*). Utopia komunista berez estaturik gabeko gizarte global batena zen.

Errealitatea halere alderantzizkoa suertatu zen, eta anarkistei arrazoi osoa eman zien: iraultza komunistek historiak ezagutu dituen estatu burokratikorik erraldoienak eta izugarrienak eratu zituzten, jendearen bizitzaren egunero jardunbiderik xumeenataraino sartzen zena kontrolatzeko.

Eraiki zituzten makina burokratikoak berehala txiki utzi zituen eraitsi izan zituzten aurreko estatu liberalak edo autoritarioak, eta totalitarismo kontzeptuari esanahi berri bat eman zioten: umeen heziketaren alde guztiak kontrolatu zituzten, gurasoei dagozkien oinarritzko eskubideak eta ardurak kenduz eta funtzionarioei emanez, ez bakarrik eskoletan, aisialdian eta kanpoko jardueretan ere; jendeak bidaiatzeari utzi zion bidaia oro susmagarri bihurtu zelako, estatuaren barruan zenean ere, baimenak eta portaera txostenak behar zirelarik legalki mugitzeko; familiek esan zitzairen etxebizitzetan bizitzera joan behar izan zuten, beste inora ez; langileek egokitu zitzairen lanpostuetara adaptatu behar izan zuten, eta ezin zuten ogibidez edota lanpostuz aldatu baimen berezirik eta portaera txostenik gabe; langileek eta beraien familiek esaten zitzairen tokietara joan behar izaten zuten oporretan oporrak nahi baldin bazituzten; jendeak komunikabide ofizialetatik bakarrik jasotzen zituen berriak, beste iturritik jasotzeko aukerarik gabe; ohitura sozial 'normaletatik' aldenduz pertsonak portaera diferenteak agertzen zituztenean, parrandan 'gehiegi' ibiltzen, bizitza bohemioa eramanez, lanik egin gabe, kritikoeziak izaten edo 'langile eredugarri' baten ohiturei nolanahi ez egokituz arazo administratiboak (judizialak ez baziren) izaten hasten ziren berehala eta uneoro; adierazpen askatasunik ez zegoen inon, testigantza askoren arabera estatu

komunista gehienetan etxeen sukaldeak bilakatu ziren adierazteko arnas leku bakarra, familian, senideen artean, lagunartean edo konfiantzazko ezagunekin, baina beti ere espiatuta izatearen beldurrez informatzaileak nonahi zeudelako (familiaren barruan eta bizilagunen artean ere).

Batek pentsa lezake superestatu burokratiko ultraintrusibo hori gaitz iragankor bat izan zela, proletariotza diktaduraren ondorio bat bolada batez beharrezkoa litzatekeena komunismoaren helduera ahalbideratzeko aurreko pauso bat gisa, baina bilakaera kontrakoa izan zen, denboraren poderioz eta errejimenak sendotu ahala estatu sozialisten makina burokraziaren tamainak eta dena kontrolatzeko grinak hazten, areagotzen eta okertzen jarraitu zuten bizitza ito eta ia hil arte, eta estatu horietako burokraziak berez lehertu ziren arte. Estatu sozialistak beraiek sortutako makina burokratiko erraldoiez zapalduta berez erori zirenean (kanpotik inork ukitu gabe) gizarteak ez ziren komunismora igaro, demokrazia liberaletara eta kapitalismora baizik.

32.- Marxek klaserik gabeko gizarte batean, non produkzio-bideak publikoak izango ziren, gizakia azkenik libre izango zela iragarri zuen, baina estatu kapitalistetan gizakia askoz libreagoa da sozialismo errealeko estatuetan baino.

Zenbait adituren ustean Marx gaztetan liberala izanaz gain liberal hutsa izan zen bere bizitzaren bukaeran ere, bere teoria osoaren xedea gizasemea lotzen zituen kateetatik askatzea zelako. Bere planteamenduan, behin kapitalismoak ezartzen zituen menpekotasun ekonomietatik libratuta, produkzio-bideak publiko egitearen bidez, gizakia asaldatzen zituen behar ekonomikoen larritasunak atzean utziko lituzke eta benetan libre izango zen azkenik.

Aldiz, sozialismo errealeko estatuetan gizakia ustezko interes orokorrak (egiazki gobernatzen zuen alderdi bakarreko oligarkiaren interesak zirenak) kudeatzen zuen estatuaren esklabo bihurtu zen, eta edozein demokrazia formal kapitalistetan (gutxieneko askatasun politikoak zein ekonomikoak -enprenditzea, lanaz aldatzea, jabe izatea eta jabetza babestuta izatea, nahi duzunean, nahi diozuenean eta nahi duzun prezioan saltzea edo erostea, kontratuak benetan borondatez adostea, eta abar- bermatzen dituen sistema) gizakiak askatasun gehiago dauka edozein estatu sozialistan baino.

Bidaiatzeko, bere iritzia adierazteko, ikertzeko, kritikatzeko, gobernutik eta erakunde ofizialeetatik planteatzen dena kuestionatzeko, bizilekuz aldatzeko, atzerrira joateko, irakurgaiak eta liburuk zein egunkariak eta aldizkariak aukeratzeko, gustuko musika entzuteko eta sortzeko, idazteko eta argitaratzeko, arte librea sortzeko eta beraz gozatzeko, gobernu hauteskunde libreen bidez hautatzeko, oinarritzko giza eskubideak errespetatzen dituen justizia independente batengana jotzeko, bilerak antolatzeke eta bileretara joateko, sinpleki nahieran bizitzeko eta abar luze bat.

Sozialismoak ez zuen gizakia askatu, estatuaren esklabo bihurtu baizik.

Autoritateen kontrolpetik jokatu ezinik, estatuaren tutoretza amaiezina pertsonen ongizaterako kezka bezala saltzen zuten eta dute baina kontrola bizi baldintzak ikuskatzetik askoz haratago zihoan eta doa, eta sistema politikoa eta oligarkia gobernatzailea bizirautea zeukan eta dauka helburu nagusia, bakarra ez bazen.

Gizakiaren iritziaren eta posizionamenduaren sortze eta osatze prozesu naturala litezkeen era posible guztiez maneiatzen saiatu ziren uneoro sozialismo errealeko errejimenak, heziketa eta informazioa propaganda merkeztatik ordezkatzeko eta izpiritu kritikoa desagerrarazten ahaleginduz, nagusia eta esklaboaren dinamika baino jainkoa eta robotaren arteko harremana eratzen saiatuz, izan ere herritar guztiak robotak bihurtzen saiatzea izan zen esperimentu komunista hein handi batean: ez zen bakarrik gobernuaren irizpide berekoak izatea derrigorrezkoa zela herritar guztientzat, are gehiago, gobernuak (pentsa omen zezaketen bakarrik) iritziz aldatzen zenean biztanle guztiek iritzia aldatu behar zuten aldi berean, atzokoa gaizki zegoela eta gaurkoa zuzena dela onartuz eta aitortuz edo alderantziz.

1939an Sobietar Batasunak naziekin itun bat sinatu zuenean Polonia inbaditzeko (Bigarren Mundu Gerrari hasiera emanez) Stalinek munduko alderdi komunista guztiei naziak ez kritikatzeko agindua eman zien eta hori bera egin zuten. 1941an naziek Sobietar Batasuna inbaditu zutenean naziak berriro kritikatzeko agindua eman zien munduko alderdi komunista ortodoxo guztiei eta hori bera egin zuten.

1948an Israelgo estatua sortu zenetik hiru egunetara Sobietar Batasuna errekonozitu egin zuen (aurreko negoziazioetan sobietar gobernuak arabeak Palestinatik deportatze proposatu zien israeldar autoritate berriei), eta Israel Nazio Batuetan sartzearen alde bozka egin zuen 1949an, partizioa onartzeko agindu ziolarik Palestinako alderdi komunista arabiarrei eta Txekiari Haganari armak bidaltzeko agindu zion (kopurua nabarmena izan zen, 22 tanke, 84 gerra hegazkin, bost mila metraila, hogeita bost mila fusil eta milaka beste arma eta milioika munizioak). 1956ko Suezeko gerraren eraginez, halere, sobietar gobernuak herrialde arabiarrekin erlazioak lehenestea erabaki zuen, estatu asko eta biztanle asko zirelako eta demokrazia mendebaldarren aurka jarri nahi zituztelako eta sozialismoa hedatu, eta beraz Israeli bizkarra eman zion Stalinek (taxuzko saio sozialista bakarrik Israelen egin ziren arren, kibutzak esate baterako) eta gauza bera egiteko agindu zion munduko alderdi komunista ortodoxo guztiei. Geroztik munduko ezkerreko pertsona gehienek (israeldarrak izan ezik, jakina) palestinarren alde egiten dute eta Israelen eta sionismoaren aurka, hori jokaera antiinperialista zintzoa delakoan.

33.- Sistema sozialistek jabetza pribatua abolitzean eta jarduera guztiak burokraziaz eta zentsuraz itotzean ekimen pribatuaren posibilitatea eliminatzen dute.

Hobera jotzeko grina ez duenak bere giza kondizioari uko egin dio, batzuek gehiago eta beste batzuek gutxiago baino denok daukagu, eta denona batua historiaren eta gizartearen garapen jarraiaren motorra da.

Sen natural hori kolektiboa izan daiteke ere bai, baina berez indibiduala da (gure geneetan dago) eta norberak bere eta bere familiaren egoera izaten da hobetu nahi duena, kendu gabe horrek besteen hobera jotzea baldin badakar ere bai jende gehiena poztu egiten dela.

Marxismoak ez du hori ikusten edo ikusi nahi, antropologia teoria marxistaren osagairik ahulenetako bat izanik (eta errealitatean oinarritutako teoria antropologikoa on bat izan gabe ezin da teoria ekonomiko zentzudunik planteatu, eta hori izan zen Marxen akats handienetako bat hain zuzen ere), eta pertsona guztiek premiazko beharrak aseguraturuta izan ezker kolektiboarengan eta herriarengan pentsatuko dutela suposatzen du.

Suposizio faltsu horrek efektu hondatzailea dauka, zeren eta kritikaren debekuari edozein ekimenen posibilitatearen galaraztea gehitzen baldin badiogu, axola duten interes bakarrik herriarenak direlako (egiatan gobernatzen duen oligarkiarenak direnak eta ez herriaren interes orokorrak) eta interes horien ardura autoritateena delako bakarrik, zer geratzen zaio herritar arruntari giza sormenetik?

Ekimena lau modutan hiltzen dute estatu komunistek: lehenik edozer egiteko baimenak eta txostenak eskatu behar legala dagoelako eta berez burokrazia bukaezinek ezinezko egiten dute edonolako proiekturik bideratzea; bigarrenik edozer diferente proposatzea arriskutsua delako errejimen totalitario batean, eta jendea isiltzen eta ezer egin gabe geratzen ikasten duelako azkenean bere naturaren kontra badoa ere; hirugarrenik ekimene askotan baliabide materialak behar dituzte, eta pobreek ezin dituzte gauzatu, eta herri komunistetan ia mundu guztia pobre da beste aukerarik ez duelako; laugarrenik eta azkenik, errealistak baldin bagara ekimen gehien xedea pertsonaren jabe izatea da, eta jabe izatea legalki debekatuta baldin badago zertarako ekin?

Non geratzen da orduan sistema horietan gizakiaren kreatibitate eta potentzial zoragarriak?

Are okerrago, komunismoak bilakaerako biderik uzten ez duenez ideologia kontserbadore bat izaten amaitzen da, eta hori bera da errealismo sozialistako errejimenetan gertatu izan dena eta gertatzen dena, egitura politiko hilak bilakatu direla hain zuzen ere, diktadura guztiak bezala, non ideia berriak debekatuta dauden. Merezi al du horrelako gizarte batean bizitzea?

34.- Marxismoa alienagarria da, behar kolektiboak lehenesten dituelako pertsonaren beharren gainetik.

Marxek ondo esan zuen moduan erlijioak berez alienagarriak dira, ustezko haratago irudimenezko paradisu batean pentsaraziz pertsonak beren honatago ahaztera edo onartzera gidatzen dituelako. Baina marxismo bera ez da oso ezberdina.

Ideologia politikoen artean sailkapen bat egin daiteke interes gunea gizabanakoan zentratzen dutenen (liberalismoa edo anarkismoa bezala) eta interes gunea kolektiboan zentratzen dutenen (komunismoa, sozialismoa edo nazionalismoa) artean.

Herritarrari denek eskaintzen eta eskatzen diote bidea bera da, lan gogorra eta austeritatea (baita aurrezte ere, liberalismoaren eta anarkismoaren kasuan), eta kasu guztietan hori eskaintzen eta eskatzen diote gizartearen interes orokorrarentzat ona delako argudiatuz.

Zertan datza orduan ezberdintasuna? Ba liberalismoaren kasuan liberalek ez dute interes partikularra interes orokorretik bereizten edo, beste modu batera esanda, interes orokorra interes partikularren batuketa naturala dela sinesten dutela eta lehenengoa defendatuz bigarrena defendatzen dela aldi berean: bere burua aberasteko lan egiten duenak konturatu gabe ere eta nahigabe ere gizarte osoa aberastu egiten baitu.

Komunismoaren kasuan, aitzitik, marxistentzat interes orokorrak interes partikularren sakrifizioa eskatzen du, eta herritarrari bere behar pertsonalak ahazteko eskatzen zaio interes kolektiboaren alde edo inoiz ailegatzen ez den etorkizun kolektibo baten alde egiteko. Pobre izateko eskatzen zaio pertsonari gizartearen aberatsa izan dadin, horrela esatearren.

Sakrifizioaren goraipatzean, pobrezia baloratzean, martirien erabileran eta etorkizun utopikoa irudikatzean kutsu erlijioso bat (kristaua hain zuzen ere) dario marxismoari, bide batez esanda.

Horrek marxismoa berez ideologia alienagarri bihurtzen du, pertsonak beren behar eta interes pertsonalak baztertzeko eskatzen duen unetik utopia (berez eta etimologikoki inon ez dagoen ideial bat) bat lortzen laguntzearen, baztertzen diren behar eta interes pertsonal horiek ez dutelarik zertan materialak bakarrik izan behar, aldiz, adierazteko beharra eta

interesa izan daiteke ere adibidez izpiritu kritikoa legez kanpo uzten duten diktadura batzuen baitan, edota informazio independentea jasotzea, edota seme-alabentzat heziketa eredua hautatzea, edo sinpleki txisteak egitea eta barre egitea bezalako eguneroko askatasun handiak eta txikiak.

Altruismoa eta elkartasuna giza naturaren osagaiak dira askatasunaren beharra eta hobera jotzeko grina bezain funtsezkoak, baina norberaren baitatik ateratzen direnean eta libreak direnean, ez behartuta. Betebehar publikoak edo legalak bilakatzen direnean ez dira bertuteak alienazioa baizik, eta hipokresia gehienen iturria.

35.- Pertsonaren beharren gainetik, kontaezinak dira komunismoak hondatu dituen familiak eta bizitzak (militanteenak barne, ausaz militanteenak nagusiki).

Zer nolako bizitza izan dute milioika gosez hildakoen edo erailen alargunek, umezurtzek eta gurasoek? Gulagetan, konzentrazio-esparruetan, berreziketa-esparruetan, bortxazko lanetan edota presondegietan bizitzaren zati bat (ia bizitza osoa zenbait kasutan) eman dutenek?

Zer nolako bizitza izan dute bizitzaldi osoa edo bizitzaldi luze bat pobrezian igaro duten herri guztiek? Adierazi gabe, ekarpen artistiko, literario, intelektual, zientifiko, politiko edo ekonomiko bat egiteko aukerarik izan gabe? Bidaiaitzeko eta beste kulturak ezagutzeko paradarik gabe? Pertsonalki hazteko edo ogibide bat askatasunez garatzeko abagunerik gabe?

Zer nolako bizitza izan dute biktimek eta borreroek?

Zer nolako bizitza izan dute jabeen, judutarren, disidenteen ondorengoak beste arrazoirik gabe baztertutakoak?

Zer nolako bizitza izan dute ilusio osoz militanteak izandakoak konplexuz, gorrotoz, pribazioz eta sakrifizioz beterik erlijio gisako sinesmen okerrak defendatzen eta praktikatzen bizitzaldia galdutakoek?

Zer nolako bizitza eta zer nolako heriotza izan dute komunista fededun zintzoek purgatuak izan zirenak?

Zer nolako bizitza izan zuten beren herrialdeetatik deportatutakoek?

Zer nolako bizitza izan zuten desjabetuek, exiliatuek, errefuxiatuek?

Zer nolako bizitza izan dute diktadura komunistak erori ondoren sistema kapitalistan biziraun saiatu behar izan duten biztanleek, zenbaitetan aro komunistako miseriako erretiro pentsioekin eta adinekoak izanik lan merkatuan berriro sartu ezinik?

Zer nolako bizitza izan dute epaiketa publikoetan beraien ustezko krimenak jendaurrean aitortzera behartuek?

Zer nolako bizitza izan dute bidegabeki irainduek, kalumniatuek, markatuek, akusatuek edota kondenatuek?

Zer nolako bizitza izan dituzte milioika errugabe horiek eta zer nolako bizitza izan dute errudunek ere?

Ametsik gabea, familia bizitzarik gabea, duintasunik gabea, askatasunik gabea.

36.- Estatu sozialistek ez dituzte arteak, humanitateak edo zientziak berez errespetatzen ezta baloratzen ere, zentsuratu egiten ditu eta instrumentalki ideologia komunista sustatzeko erabilgarriak suertatzen diren heinean bakarrik toleratzen ditu.

Gainontzeko muturreko ideologia hertsien modura, marxismoak begirada instrumental batez ikusten ditu giza disziplina guztiak: kausarako erabilgarriak baldin badira ondo, bestela alferrikakoak dira, oztopo bat. Artea komunista, herrikoia edota nolabait instrumentalizatuaz izateko gaia baldin bada ondo, bestela zaborra da, arte dekadentea, eta kutsu kritiko bat agertzen baldin badu herriaren etsaiena da, burges txikia eta iraultzaren kontrakoa.

Jarrera horren azpitik datzan oinarrizko arazoa politikari garrantzi gehiegi ematea da, teorizatzaileen kasuan, baina geroztik eratutako estatu totalitarioetako gobernuentzat boterera gordetzeko estrategien kontu hutsa da.

Diktadurak eta izpiritu kritikoa ez ohi dira uztargarriak, eta kritikoak ez diren zientzia, lan akademikoa, arteak edota literatura ez dira egiazkoak, propaganda besterik ez baizik.

Zentsuraz mintzatzea azalekoa litzateke edozein lana aztertuta egongo denez ziurtasuna dagoen testuinguru batean, eta bestaldetik sormen edo ikerketa lan bat aurrera eramateko normalean gutxieneko baliabide material batzuk behar dira, eta errejimen komunistek propagandistak edo oportunistak ziren idazleei, artistei, ikertzaileei eta akademikoei ematen zizkien bakarrik (unibertsitateetako eta erakunde zientifiko edo artistikoetako lanpostuak barne, lanak argitaratzeko, erakusteko edo aurkezteko aukerak barne, eta abar).

Politika kulturalki itogarri horren ondorioak ez dira ulertzeko zailak: pobrezia ekonomiko eta materialari pobrezia kulturala gehitzen da, eta beste aisialdi aukeren faltan irakurketa eta arteaz gozatzea liburutegi eta museo publikoetan (irakurketa tasak oso altuak izan ziren Europako estatu sozialistetan, irakurtzea bizitza gris batetik ihes egiteko bide bakarra zelako) geratzen den irteera ia bakarra denean antzeman daiteke giroaren astuna: diktadurak basatiak eta izugarriak izateaz gain antzuak eta aspergarriak dira.

Sozialismo errealeko gizarteetako zientzialari, ikertzaile, idazle eta artista gehienak erbesteratu egin ziren (demokrazia mendebaldarretara ia beti, Milan Kundera, Reinaldo Arenas, Ayn Rand, Vladimir Navokov, Aleksander Solzhenitsyn, Rudolf Nureyev, Milos Forman, Mikhail Baryshnikov, Vitali Vitaliev, Guillermo Cabrera Infante, eta zerrenda amaiezin bat), era horretan destinoko herrialdeen bizitza kulturala aberastuz eta jatorrizko herrialdekoa, non naturalki beren lanek bertako giro kulturala emankor bihurtu behar izan zuten, pobretuz.

37.- Ideologia marxistak tresna askatzaile bezala bere burua saldu arren estatu totalitarioak eratzea eragiten du, bizitza publiko eta pribatu aspektu guztiak etengabe kontrolatzen saiatzen direnak.

Juan Linz-ek diktadura totalitarioak errejimen autoritarioetatik bereizten ditu. Diktadura autoritarioak, eskuinekoak orokorrean, boterea ez demokratikoki eskuratzen edota mantentzen dute, zentsura sistemak ezartzen dituzte eta oposizioa zapaltzen dute jendearen parte hartze politikoa edo sindikala galaraziz, eta errejimenaren ideologia ofiziala promozionatzen dute, baina ez ohi dira diktadura komunistak bezain intrusiboak pertsonen bizitza publikoan zein pribatuan, azken hauek totalitarioak izateko joera agertzen dutelako, hau da, bizitzaren aspektu guztiak kontrolatzeko grina (ustez 'gizaki mota berri bat' gizarte laborategi batean sortzeko asmoz) dituztenak: lanak, bidaiak, heziketa, aisia, kultura herrikoia eta goi kultura, komunikabideak, bikote harremanak, orientazio eta portaera sexuala, jendaurreko portaera oro har, justizia sistemak, edozein adierazpen forma, sinesmen erlijiosoak, umeen jolasak eta jarduerak, eta abar.

Errejimen totalitarioek ondo garatutako ideologia bat (marxismoa kasu honetan) errealitatean aplikatu nahi dute. Hemen kontua ez da dagoeneko boterea eskuratzea eta mantentzea bakarrik, errealitatea eta bereziki gizakiak aldeztetik kontzebitutako ideologia baten arabera aldatzen saiatzea baizik, utopia bat nonbait praktikan jartzea, eta horregatik jendearen bizitzarenganako inpaktua askoz handiagoa, sendoagoa eta jarraiagoa da.

Nahi ez dutenek ere fede berrian bataiatuak eta ebanjelizatuak izatea onartu eta jan egin behar dute, eta beraien bizimodua baldintza berrietara egokitu behar dute ondorioak pairatu nahi ez badute.

38.- Marxen teoriaren arabera, non baldintza materialek gizakiaren izaera determinatzen duten, estatu sozialistetako biztanleak, materialki pobreak eta ekimen ahalmena galduta izanik, izpiritualki pobreak lirateke.

Marxek zera esan zuen: *Bizitza materialeko ekoizpen moduak bizitzaren prozesu sozialen, politikoen eta izpiritualen eite orokorra determinatzen du.*

Bere teoriaren arabera, beraz, estatu komunistetako giro pobrean, zapalduan eta grisean bizi izandako pertsonak grisak eta odolgabeak izango lirateke, baldintza horiek herritar apatikoak determinatuko eta sortuko lituzketelako. Zorionez ez zen horrela izan, eta zapalkuntzaren eta pobreziaren erdian gizaseme apartak sortu ziren diktadura komunistetan, kritikoak, sortzaileak, jasoak, toleranteak eta irekiak, giza izpirituak beti aurkitzen duelako baldintzarik latzenak ere gainditzeko bidea, baina hori berak paradoxikoki frogatzen du Marxen materialismo historikoaren ikuspegiaren funsgabetasuna.

39.- Marxek iraganari buruzko ikuspegi ebolutibo eta dinamiko bat zeukan, baina etorkizuna estatikoa ikusten zuen, geroko bilakaerak onartu edo aurreikusi gabe, komunismoak historiaren bilakaera gelditzeko gauza balitz bezala.

Kontraste handia dago Marxen iraganari buruz planteatu zuen ulerkuntza orijinala eta dinamikoaren eta etorkizunari buruz zeukan ikuspegi estatikoaren aurrean. Fukuyama baino ehun eta berrogeita hamar urte lehenago Marxentzat komunismoa historiaren amaiera izango omen zen.

Aurreko aro historiko guztiak zibilizazioak igo behar izan zituen harmailak ziren komunismora igotzeko eskailera bat osatzen zutenak, non azkenekoa Iraultza Industrial eta burgesiaren agintea izan zen. Behin Gizateria komunismora helduta Marxek historia geldituko zela pentsatzen zuela ematen du, nonbait gizakien bilakaera geldituko zela.

Hori, bere teoria ideologikoaren ezaugarri bitxitzat edo ahuleziazat har daitekeena, eragin oso kaltegarria izan zuen aurrerantzean, gobernu komunistek eboluzionatzeko behar teorikorik ez zutelao ikusi (egoera sozial bakoitzak eskatzen zuen erantzunez haratago) komunismo bera eraikitzeaz aparte, eta beren buruak boterean mantentzeaz aparte jakina.

Ikuspuntu horretatik ikusita, marxismo ideologia esklerotikoa eta dogmatikoa da jaiotzez, eboluzionatzeko gaitasuna oso mugatua daukana eta errealitateri egokitze arazo nabariak daukana.

Are gehiago, marxismo testuinguru historiko zehatz baten (kapitalismoaren hasiera) aurreko interpretazio bat eta errezeta puntual bat da, giro zehatz baten argazkiaren negatiboa horrela deitzearen, baina oso iragankorra eta hurrengo mendean (XX. mendean) praktikan aplikatzen saiatu zenerako dagoeneko zaharkituta zegoena.

Ondorioz, eta espero zitekeen bezala, sozialismo errealeko estatuetakoko sistemak errejimen kontserbadoreak izan ziren, ortodoxian eta dogmatismoan nonbait trabatuta geratu zirenak (bloke ia osoa erori zenean isolaturik geratu ziren bost diktadura komunistetatik hiru

kapitalismora igaro ziren arte, hori eboluziotzat hartu nahi baldin bada), eta hobetzeko baliotsuak zitezkeen kritika eraikitzaileak isiltzen eta baztertzen.

Porlanezko egitura prefabrikatu bat bezala errealitate ozeaniko magmatiko aldakorren gainean ipintzen dena trinkoa izateagatik iraun zuena baina zurruna izateagatik iraun ez zuena, aldaketa etengabeei moldatu ezinik ezin zuelako iraun. Mundu honetan orokorrean baina giza kontuetan bereziki eta gizarte gaietan zer esanik ez, ez da egon eta ez dago iraun duen artifizio kontzeptualik garaietara eta lekuetara egokitze gutxieneko malgutasuna eta moldakortasuna ez baldin badu izan. Bide batez esanda, tokian tokiko eta egoeraren araberrako sortu diren marxismoaren garapenak, leninismoa edo maoismoa kasu, marxismo bera baino okerragoak eta zurrunagoak izan direla.

40.- Komunismoa ez da inoiz ailegatzen, munduan geratzen diren bost estatu komunistetako (Kuba, Txina, Vietnam, Laos, Ipar Korea) konstituzioetan komunismoa eraikitzen dihardutela diote, hirurogeita hamar urte ondoren kasu batzuetan.

Sistema marxistetako herritarrak Tantaloren madarikapena jasotzen eta jasaten dute, komunismoa eskaintzen zaie mirarizko paradisua bezala baina amua beti haratago dago, erlijioek agintzen dituzten paradisuaren gisara, eta ez da inoiz iristen.

1959an eratu zen Kubako errejimenak zera dio 2019ko Konstituzioko bostgarren artikuluan: “Kubako Alderdi Komunistak bakarra, martista, fidelista, marxista eta leninista, nazio kubatarraren abangoardia antolatuak, bere izaera demokratikoan eta herriarekin bere lotura iraunkorrean oinarritua, gizartearen eta Estatuaren goi indar politika zuzentzailea da. Sozialismoa eraikitzeko ahaleginak eta gizarte komunistarako aurrerapena antolatzen eta orientatzen ditu.”

1949an eratu zen Txinako Herrik Errepublikak zera dio indarrean dagoen 1982ko Konstituzioko sarreran: “Txina sozialismoaren lehenengo etapan luzaro egongo da”.

Komunismoa noizko? Hirugarren milurtekorako? Erlijioekin gertatzen den modu berean batzuk oso ondo bizi dira etorkizuneko ustezko paradisuaren etorrera kudeatzen.

gibel solas gisa

Ideologiaren eta zientziaren artean identifikatu diren desberdintasunetako bat ideologiaren diskurtso orojakileak planteatzeko joera da. Ideologiak *horror vacui* ohi dauka, dena azaldu nahi du eta gauza gehienentzat iritzia emateko eta proposamenak planteatzeko beharra sentitzen du.

Marxek aurreko sozialista utopiko aurrelariengandik aldentzeko sozialismo zientifikoa egin nahi zuen, baina tamalez ez zuen lortu, bere lanen zorroztasun zientifikoa (ekonomia, historia, soziologia eta politika zientziak direla onartuz gero, edo mintzatzeko modu hori asumituz bederen) oso eskasa da, baliogabetuta geratu zen hein handi batean bere bizitzan bertan eta Engels bezala intelektual apart bat izateaz gain Marx ideologo bat izan zen burutik oinetaraino, ez zientzialari sozial bat.

Bere heriotzaren ondoren izan zuen oihartzuna kontuan izanda, XX. mendean gehien bat eta Gizateriaren zati nabarmen batentzat, hori esatea hutsalkeria bat dirudi baina egia biribila da.

Bere ahal itzelaren fruitu den eraikin teorikoa miresgarria da aspektu dezentetan, inspiratzailea, batik bat bizi garen postmodernitate edo gainmodernitate zatikatzailetik ikusita (Fernando Savaterrek zioen moduan, gure aroa saiakerena da, ez tratatuena) askoren ustean Marx sistema oso bat eratzen azkeneko filosofo (berak filosofia arbuizatzen zuen arren) garrantzitsua izan zen, perspektiba berri bat eskaini diguna eta historiaren eta ekonomiaren gaineko begirada berri batez argiztatu zituena.

Halere eraikin teoriko hutsa da, zimendurik ez daukana eta zorroztasunik gabe eratua. Marxen asmoa ez baitzen teoria filosofiko berri bat plazaratzea mundua aldatzea baizik, eta bere helburuen argitan aztertuta bere lanek ez dute asmatu, errealitatea aldatzeko eskaini zituen lanabesak txarrak eta okerrak frogatu direlako.

Justua izateko eta bere bortizkeriarekiko fedea bere horretan baloratzeko gogora ekarri behar dugu Marxek ikusi zuen eta asaldatu zuen kapitalismoa, lantegietako umeena, elikatzeke ere irabazten ez zuten langileena, babesik gabeko istripu laboralena, esplotazioarena, zapalkuntzarena eta behar gordinena. Halere, Marxek kapitalismoaren bilakaera autosuntsitzaileari buruzko iragarpen guztiek huts egin zuten (Marxek berak ez

bakarrik ziurak bezala aurkezten zituenak, ezinbestean etorri beharrekoak bezala baizik): kapitalismoak zibilizatzeko eta bere burua behin eta berriro errotik berrasmatzeko gaitasuna erakutsi baitu igarotako berrehun urte hauetan, marxismoak ez, ezta behin ere.

Garai batean burgesia mendebaldarrak iraultza komunisten beldur izan ez balira ongizate estatutik ez geneukakeela? Ados, baina taxuzko marxista batek hor ideologia marxista bera osagai gainegiturazko bat besterik ez zela esango luke, gizartearen eta modu produktiboen indarrek emaitzak eta egokitzen zaizkien egitura politikoak sortzen dituztela berez inolako ideologiaren laguntza beharrik gabe.

Ideologia kenduta Marxi buruz ez ginateke hitz egiten egongo XXI. mendean posizionamendu ideologikoetatik at bere ekarpenak, oso indartsua eta eraginkorra izanik, interes publiko objektiborik ez leukake eta interes akademiko oso mugatua, oso jende gutxik izango luke Marxen berri posizionamendu ideologiko bat sortzeko dohaina izan ez balu.

Nolabait esate arren, kezkaz azaleratzen eta galderak zorrozten lortu zuen Marxek, baina eskaini zuen erantzunak ez du baliorik, alferrikakoa da eta, okerrago oraindik, ondorio ikaragarriak izan ditu milioika pertsonen bizitzan eta heriotzan.

bibliografia

ALEKSIÉVICH, Svetlana. *El fin del 'Homo sovieticus'*. Acantilado. Barcelona. 2015.

BILDT, Carl. "Por qué Marx se equivocó". La nación. 2018/05/13.

COURTOIS, Stéphane, WERTH, Nicolás, PANNÉ, Jean-Louis, PAEZKOWSKI, Andrzej, BARTOSEK, Karel, MARGOLIN, Jean-Louis. *Le livre noir du communiste. Crimes, terreur, repression*. Robert Laffont. Paris. 1997.

EBELING, Richard M. "Marxist are not in the 'Right Side of History'". 2017/06/09. Foundation for Economic Education.

"Cómo Karl Marx se equivocó en la historia". 2022/07/18. Foundation for Economic Education. Panam post.

ESCOHOTADO ESPINOSA, Antonio. *Los enemigos del comercio I, II eta III*. Espasa. Madrid. 2019.

HAYEK, Friedrich. *The Road to Serfdom*. Routledge. London. 2001.

KOLAKOWSKY, Leszek. *Las principales corrientes del marxismo: su nacimiento, desarrollo y disolución*. Alianza. Madrid. 1983.

LINDBLOM, Charles E.. *The Market System: What It Is, How it Works, and What to Make Out of It*. Yale University Press. New Haven. 2001.

LINZ STORCH DE GRACIA, Juan José. *Sistemas totalitarios y regímenes autoritarios*. Centro de Estudios Políticos y Constitucionales. Madrid. 2009.

MADDISON, Angus. *Contours of the World Economy 1-2030 AD*. Oxford University Press. Oxford. 2007.

MARX, Karl. *El capital*. Siglo XXI. Madrid. 2017.

MARX, Karl, ENGELS, Friedrich. *Manifiesto comunista*. Austral. Madrid. 2019.

POPPER, Karl. *La sociedad abierta y sus enemigos*. Paidós. Barcelona. 2017.

SCHILLER, Bradley R. *Essentials of Economics*. McGraw-Hill. New York. 2005.